


tti pi-ttapa

238. zenbakia • 1998ko irailak 24 • XVII. urtea



Andres IÑIGO


“Euskararen egoerari buruzko kezka zegoen hemen duela 75 urte”

1985.etik Euskaltzaindiako kide da Andres Iñigo ittundarra. Asteburu honetan, II. Euskal egunen 75. urteurrena oroitzuz euskaltzainek bilera egingen dute Donezteben. Oraingo eta lehengo kontuak aipatu ditugu: «Emakume eta neska gazteek euskara zerbait lotsagarri bezala zuten duela 75 urte».  3

Denboraldi berria hasi du TTIPI-TTAPA TELEBISTAK

Orain arteko informatiboaz gain, hiru saio gehiagok egin dute salto irailaren 14an hasi zen programazio berrira

Hainbat aurpegi berri ikus daiteke irailaren 14tik honat TTIPI-TTAPA TELEBISTAKO pantailan. Programazioaren zutabea den informatiboa finkatzearekin batera, herri telebista osatzen duen lan-taldeak gai desberdinei buruzko hiru saio gehiagoko jarri ditu martxan.

Batetik, Herri Herri saioan gure herrietako kontu bitxiak ikasi ahal izanen ditugu ortzirale-ro Nerea Alzuri aranztarraren eskutik. Gainera, herri bakotzak bere berriemaile berezia izanen du. Bertzetik, asteburuko kirol ekitaldien berri ekarriko digute astelehenero Jokoa Solasekoek. Azkenik, kultur eta gizarte gaiak maite dituztenentzat espreski pentsatua den saioa aurkezten digu Jon Abrilek: Bidegurutzean.  22

PROGRAMA BERRIAK



• HERRIZ HERRI:

Ortziraleko, arratseko 9,30etan, gure herrietako berrixkak. Nerea Alzuri aranztarrak aurkeztua.

• JOKOA SOLAS:



Astelehenetan, asteburuko kirol ekitaldien errepeaso, Aitor Arozena eta Felipe Saraguetaren eskutik.



• BIDE-GURUTZEAN:

Asteazkenetan, 9,30etatik aitzinera, Jon Abril beratarrearekin izanen dugu zita, kultur eta gizarte gaietaz hitz eta pitz aritzeko.





Igantzikoko bestetan, herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu
Besta zoriontsuak!

GAN NAFARROAKO AURREZKI KUTXA



Igantzikoko Udalak besta onak opa dizkizue
Igantziar eta bisitari guziei

DATUAK.....

❖ Euskaltzaindiako kide da Andres Iñigo ittundarra 1985. urtetik. Iazko hilbeltzetik Nafarroako ordezkaria da.

❖ Iruñeko Hizkuntza Eskolako zuzendaria da eta bertako irakasle bezala ari da lanean.

❖ Bigarren Euskalegunen 75. urteurrena gogoratuz euskaltzain osoen hileroko bilera Donezteben eginen da aste ondar honetan.

❖ Euskararen hedapena Malerrekako irakaskuntzan azken 23 urteotan eta Malerrekako euskararen egoera izanen dira, bertzeak bertze, solasgai ortziral arratseko batzar irekian.

✍ **Andres IÑIGO** *Euskaltzaindiaren ordezkari Nafarroan*

“Euskararen egoerari buruzko kezka zegoen hemen duela 75 urte ere”

ZEIN EKITALDI ANTOLATU DITUZUE ASTEBURU HONETARAKO?

Alde batetik euskaltzain osoek hileroko egiten duten batzarra Udaletxean eginen da. Bertzalde, Jagon Sailaren (euskararen kalitateaz arduratzen dena) II. topaketak eginen dira eta IV Ahoskera Jardunaldiak ere burutuko dira.

ZERGATIK AUKERATU DUZUE DONEZTEBE HONETARAKO?

Aitzakia, Donezteben bertan 1923. urtean burututako II. Euskalegunak gogora ekartzea izan da. Orduan, hiru egunez hainbat solasaldi egin ziren. Bizpahiru hilabete lehenagotik, inguruko herrietan giroa sortzen hasi zen. Apezen bitartez, 7-14 urte arteko euskaraz leitzen eta idazten erakusten aritu ziren. Lehiaketa antolatu eta sariak banatu ziren.

ZEIN HELBURUREKIN EGIN ZIREN 1923KO EUSKALEGUNAK?

Euskaltzaindia lau urte lehenago sortu zen eta Euskalegunak euskara sendotzeko eta indarberitzeko asmoekin egin ziren. Zergatik Donezteben? Bada, Nafarroako Diputazioak urtebete lehenago Euskal Jaiak antolatu zituen Etxarri-Aranatzen, eta Euskaltzaindiak egin dako proposamenak segida ematen zion eki-



«1923ko Euskalegunak gogo onez hartu zituzten doneztebarrek».

taldi hauei. Diputazioan baziren zenbait euskaltzale –Irujo, Baleztena...– eta Doneztebeko Udalak ere gogo onez hartu zuen ospakizuna, Euskaltzaindiaren esku utziz zinea, Udaletxea, eliza... Garraiko prentsak ere ongi ikusi zuen ekitaldia Doneztebera ekartzea. *El Pensamiento Navarro* egunkari karlistak bere editorialean zioenez,

«*Bidasoaldean gainberan dagoen euskara berrindartzeko abiapuntua*» izan zitekeen.

BERAZ, BADIRUDI ORDURAKO KEZKA SORTZEN ZUELA EUSKARAREN EGOERAK. DUELA 75 URTE ZEIN EUSKAL GIRO ZEGOEN INGURU HONETAN?

Kezka bazen, bai. Badirudi batzuk, emakumeak eta neska gazteak, batez ere, euskara ez erabiltzeaz harrotzen zirela, euskara zerbait lotsagarri bezala zuten. Garai hartan Euskaltzaindiako lehenda-

karia zen Azkuek kezka hori erakutsi zion Fernando San Martin orduko Doneztebeko alkateari. Azkuek zioenez, neskatxoek eskolan lau mojak erdalduinak ziren eta ‘beranduegi izan gabe, bederen bi euskaldun jartzea’ eskatu zion alkateari. Gauza beretsua eskatzen zuen mutikoen eskolarako, Donezteben pausu hori ematen bazen inguruko herrietan –Bera, Lesaka eta Elizondón– berdin jokatuko zutela uste zuen Azkuek.

► *“Emakume eta neska gazteek, batez ere, euskara zerbait lotsagarri bezala zuten duela 75 urte eta ez erabiltzeaz harrotzen ziren”*

TESTUA:

AITOR AROZENA

ARGAZKIA:

TTIPI-TTAPA TELEBISTA



TTIPI-TTAPA TELEBISTA

Aurpegi berriak denboraldi berrian


Pixkan-pixkan hobetzen joatea, horixe izan zen sortze egunetik beretik TTIPI-TTAPA TELEBISTAK bere buruari jarri zion erronka. Herri telebista honek izan nahi duenaren bidean, pausu haundia ematen ari da momentu honetan, irailaren 14az geroztik martxan baitago TTIPI-TTAPAREN programazio berria. Ohiko informatiboaz gain, bertze hiru programa gehiago izanen dira astero-astero; 'Jokoa Solas' kirol saioa, 'Bidegurutzean' kultur magazina, eta 'Herri-herri', astean zehar gure herri eta auzoetako berrixken errepassoa eginen duen saioa.

Aurpegi berriak ikusten ahal dira dagoeneko TTIPI-TTAPA TELEBISTAKO programazioan, eta etorkizunean ere gehiago ikusiko ditugu, ez egin dudarik horretaz. Nerea Alzuri, Aitor Arozena,

Felipe Saragueta eta Jon Abrialek lehen-dabiziko aldiz zanpatu dute telebistako plato bat, nahiz eta azken honek kamaren aitzinean esperientzia pixar bat bazuen lehenagotik. Estitxu Fernandez informatiboetako aurkezlearekin batera, horietxek izanen dira gaue-ro-gaueko gure telebistan topatuko dituzuen aurpegiak.

Hasieran azpiegituraz eskas xamar ibilienez, TTIPI-TTAPA TELEBISTAK nahi-lan izan du arratseroko informatiboa prestatzearekin bakarrik, baina denboraldi berri honekin bertze urrats bat eman nahi da programazioa osatzen joateko bidean.

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRALA
13:00		TTIPI-TTAPA Berriak errepikapena			
13:30	Herri-herri errepikapena	Jokoa Solas errepikapena	Berriak (errep.)	Bidegurutzean errepikapena	Berriak (errep.)
21:00	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak
21:30	Jokoa Solas	Berriak (errep.)	Bidegurutzean	Berriak (errep.)	Herri-herri



BERRIAK

Estitxu FERNANDEZ



Noiz?

Egunero, arratseko 21:00etan
Errep: Ondoko egunean, 13:00etan

Zer?

Egunean zehar inguruan gertatu diren notizia nagusien kontakizuna hurbilduko digu TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN informatiboak.

Ofizio ugari lankidea da Estitxu. Ikasketaz sikologoa eta ofizioz kazetari, bertsolari eta irakasle. Bera da TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN 'aurpegia' hasiera beretik eta berak aurkeztuko du orain ere Berriak saioa.

Eguneroko aktualidadea da saio honetan agertzen dena, gure herrian edo ondoko herrian notizia dena. Eta aktualidadearen segimendua egiteaz gain, eguraldiaren iragarpena eta hurrengo egunetan agen-

da n kontutan har-tzeok izanen diren ekitaldien berri ere eskaintzen da informazio saio honetan. Bertakoekegina bertakoentzat.



JOKOA SOLAS

Felipe SARAGUETA - Aitor AROZENA

Noiz?

Astelehenero, arratseko 9,30etan
Errepikapena: Asteartea, 1,30etan

Zer?

Asteburuan eskualdean gertatu diren kirol ekitaldien errepasoa eta protagonista nagusien iritziak bilduko ditu programa honek.

Futbola, pilota, herrikirolak... gure herriotan astebururo izaten dira hainbat eta hainbat kirol ekitaldi, baina zaila da denen berri izatea, zuzenean ikusi ezean. Orain, ordea, herriko futbol taldearen partiduko

jokaldi hoberenak, edo txirrindulari lasterketaren irudiak ikusteko aukera dugu TTIPI-TTAPATELEBISTAN. Eskualdean suertatzen diren gisaguzietako kirol ikuskizunetan, hantxe izanen dira gure kamarak ere.



Aitor TTIPI-TTAPAKO kazetaria da duela urte mordoak, eta Felipe, berriz, Zuzenbidean lizentziatua da.



BIDEGURUTZEAN

Jon ABRIL

Noiz?

Asteazkenero, 9,30etan
Errep: Ortzegunean, 1,30etan

Zer?

Kultur gaien buruzko saioa izanen da, elkarrizketak eta erreportaiak tartekatuko dituena. Lehiaketa bat ere eginen da astero-astero.

Jon Abril aski pertsonaia ezaguna da Bortzirietan, inguruan egiten diren kultur ekitaldi auzitan antolatzaile edo laguntzaile gisan parte hartzen duelako batez ere. Bertso saioetan gaitzaitzaile edo epaile be-

zala aritukatu da frankotan. Bere saltsan egonen da, beraz, kultura ardatz duen programa hau aurkeztzen. Baina kultur gaiekin ez ezik, gizartearen interesaz pizten duten bertze gisako gaiekin ere topo

eginen dugu Bidegurutzean. Izan ere, gaitz berdinak ikuspegi zabal eta aberats batetik lantzea baitu helburu saio honek.



HERRIZ HERRI

Nerea ALZURI

Noiz?

Ortziralero, 9,30etan
Errep: Astelehenean, 1,30etan

Zer?

Herriz-herri hartutako berriak bilduma eginen da saio honetan, herri bakoitzeko berriemaileen eskutik.

Kazetaritza ikasketen hondar urtea burutuko du aurten Nerea Alzuri aranztarrak Leioan, Bizkaian. Berak egiten du herri desberdinetako berriemaileekin koordinazio lana, eta bere esku izanen da, halaber,

programa honen aurkezpena egitea. Herrietako hainbat notizia eta bitxikeri hurbilduko dizkigute bihurtik hasita ortziralero, inguruko kontuetaz behar bezala informaturik egon gaitzen.

Gainera, tarteka herriko jendearekin elkarrizketak egiten dituzte afera honen edo haren gaineko eritzia zein den jakiteko.



Telebistaren mundua ezagutarazi

Hastapenetik, gure herri telebistaren asmoetako bat izandu da eskualdeko jendeari telebistaren mundua ezagutzeko aukera ematea. Momentu honetan gaude, inoiz baino gehiago, laguntza horren beharrean. Laguntza ekonomikoa, batetik, telebistaren proiektua egonkortu eta aitzinera atera dadin, baina baita jendearen partehartze zuzena ere. Gisa honetan, zenbait bolondres telebistan praktikak egitera animatu dira dagoeneko (elkarrizketak egiten edota kamara maneiatzen), eta zuetako bakarren bat interesatuta baldin badago telebistaren mundua hurbile-

tik ezagutzeko, badakizue, ate guziak irekiak daude TTIPI-TTAPA TELEBISTAN.

Ez duzu ikusi oraindik TTIPI-TTAPA TELEBISTA?

Etxeko telebista sintonizatzeko problemak izanez gero, deitu berehala zure konfidantzako antenistari edo TTIPI-TTAPARA. Antena kolektiboa duten pisu-etxeetan beharrezkoa da seinalea indartzeko aplikadore tiki bat instalatzea. Gainerakoan, gogoratu Bortzirietan 49. kanalean emititzen dela Fraindik eta Sunbillan 21. kanalean. Urte hondarrerako Malerrikan eta Leitzan ikusi ahal izanen da.

Euskarazko Herri Telebisten Federazioko partaide

Gipuzkoako Oarso Telebistak (Oiartzun, Errenteria, Pasaia eta Lezon ikusten da) eta TTIPI-TTAPA TELEBISTAK martxan jarri dute berriki Euskarazko Herri Telebisten Federazioa. Abiatu den bidetik elkarlana gauzatzen hasia da momentuz bi telebista hauen artean, eta etorkizunari begira, gonbitea luzatu zaie batetik Arrasate Telebista, Xaloe eta Aldudeko Elebistari, etabertzetik, sortze prozesuan dauden proiektu berriei, gisa horretara elkarlanaren bidetik urrats berriak emateko. ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.050 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

Tfnoa: 948 63 11 88

Faxa: 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Zuzendaria: Aitor Arozena. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogortza, Joxemanuel Irigoien.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzio taldea: Pello Apezetxea, Juainas Paul, Bittori Telletxea.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elxabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...

Inprimategia: Gertu.

ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkar-
te...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Araudi aldaketa Erronkari Jatorrizko Izendapenean

Jendea Lacaune ardiekin hasiko da lanean, batez ere Iruñeatik beheiti

Juan Angel MENDIBURU
Artzaina eta Kontseiluko kidea. Azpilkuea

Erronkari Jatorrizko Izendapena mantentzeko esne gehiago behar zen, latxaren esnearekin bakarrik ez baitzen kontzen ahal, eta orduan Erronkariko Kontseiluak araudian aldaketa batzuk sartzea erabaki du. Horien arabera, beraz, Lacauneren esnearekin ere egin daiteke Erronkariko gasna, eta ez orain arte bezala latxa eta rasa arrazako ardi esnearekin soilik. Izan ere, esnea kanpotik ekarri baino lehen -joan den urtean Frantziatik bezala- hobe da Lacaune ardi esnearekin egitea.

Guk ardi latxak ditugu etxean, 220 denetara, baina neri ez zait gaizki iduritzen Lacaune ardi esnea ere biltzea, kanpotik ekartzen ez duten bitartean behinik-behin. Hemen zonaldean kostako da, baina bere garaian behi esneekin gertatu zen bezala, jendea latxa utzi eta lacaune arrazaren hasiko da lanean, batez ere Iruñeatik beheiti.

Gaur egun probak egin dira Lacaune arrazako ardi esnearekin, eta erran behar da kalidade aldetik ez dela aldaketarik somatzen azkeneko produktuan.

Lacauneren esnea biltzen ari dira dagoeneko, eta produkzioa ere martxan da gaurgero.

Latxa arrazari zerrikumeekin gertatzen ari den gauza bera gertatuko litzaioko



Miguel Mari ARIZALETA
Artzaina. Orabidea.

Nere iduriz, eurek nahi zuten bezala Erronkari Jatorrizko Izendapenean

bertze edozein arrazen esnea sartzen baldin bazen, merkatuan ardi rasa eta latxaren -hemen goa- esnearen prezioa jautsi egingen zen. Kasu horretan, esne aunitz izanen zen, eta orain zerrikumeekin gertatzen ari den gauza berbera gertatu litzateke. Jatorrizko Izendapenean bertze arraza sartu ezkerreko latxak ezin izanen luke harekin konpetitu, puskaz esne gehiago ematen dutelako.

Hala ere, 400 artzain baino gehiagok firmatu genuen Jatorrizko Izendapen horretan aldaketak egitearen kontra, eta hori adierazgarria da. Pentsatzen dut kontutuan hartuko dutela eta hondarretan ez dutela erabaki hori hartuko.

Gainera, latxak orain izen on xamarra hartu du merkatuan, eta hortaz pixka bat aprobetxatu behar dela uste dut. Esnea hobe saltzeko erabili behar zen izen on hori. Izan ere, Erronkari eta Idiazabal gasnak ongi ari dira saltzen, eta prezioak ere goiti heldu ziren hondarreko urteetan. Hori da kontua, merke saltzen baldin bazen ez zuela inork sartu nahiko, baina...

Kontseiluak onartu duen akordioa goxoki pozoindu bat da artzaiendako




Mikel PETRIRENA
EHNE sindikatuko

Joan den martxoan Erronkari Izendapenaren arauak aldatzeko akordio

bat onartu zen. Honen ondorioz ardi latxa eta Erronkariko gasnaren ezinbertzeak lotura puskatuko da eta gasnategiak libre geratzen dira Nafarroako edozein ardi esne erabiltzeko.

Akordioa, elaboratzaileen interesa eta presioagatik onartu da eta Nafarroako artzain gehiengoaren interesen aurka. Gaur egun Nafarroako ardi esnea produzitzen duten artaldean %95ak ardi latxak dituzte eta Erronkari eta Idiazabal izendapenen eraginez latxaren esnea gero eta preziatuagoa da. Bertzaldean, esnea biltzen duten enpresen arteko konpetentzia ere haunditu da eta esne ausarki eta merkea lortzeko inposatu dute izendapenaren aldaketa.

Gure ustez, Kontseiluak onartu duen akordioa goxoki pozoindu bat da artzaiendako. Epe laburrean, produkzio haundiko artaldeek bultzada izanen dute, esne kopurua haunditu eta esnearen prezioak behera egingen du. Hau merkatu libre da, eta bertan latxak ez du konpetitzerik ardi industrialekin. Epe luzera, berriz, izugarriko errekonbertsioa dator sektorean.



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

BOTA BERTSOA



Bertso Eskolak

Celia ORDOKI

Neurria: Zortziko Haundia

*Bertsolaritza jaitsi egin zen
orain dela hainbat urte
eta hau igo egingo zenik
ez zuen inortxok uste
Euskal Herriko bertso eskolek
hau indartu egin dute
bertso eskolara etortzen gara
hau mantentzearen truke*

*Bera herrian elkartzen gara
gazte kopuru polita
zortziak arte egoten gara
sei terdietatik hasita
bi ordu oso egoten gara
bertso munduan itxita
asteazkenero izaten dugu
bertso eskolarekin zita*

Aitor lagunaren omenez

(Joan den uztailean joan zitzaigun
Aitor Elizalde saldistarraren ohorez)
Arimak ez ezik
Hatsak ere min
ematen digun honetan
Tristura itsatsirik gelditu da
baserriko paretetan
Arimak ez ezik
Hatsak ere min
ematen digun honetan
Egusentian belarrak
negar egin duenean
Malkoak zerizkion
etxeondoko lizarrari
Orratzek bihotzean
samina amari
Egusentian belarrak
negar egin duenean
Faborez!
Geldi dadila haizea une batez!
Zu eraman zaituelako heriotzak!
Isil bitez killkir, abere eta hontzak!
Edota...
Aitor lagunaren aginduz
Desager dadila behingoz
Etxeko laratzean kurubilkaturik
dagoen tristezia!
Aitor lagunaren aginduz
Faborez!
Oro oroitzapen iheskor
den honetan
Jalgi dadila sukaldetik
atsekabe hori!
Itxaropen izpi bat
nahi nizukeke igorri
Arimak ez ezik
Hatsak ere min
ematen digun honetan.

JOXE JABIER ELIZALDE ILARREGI



IRAKURLEAK MINTZO

OHARRA:

*Iritzi ezberdinek
tokia izan dezaten,
ez da komeni
makina idatzitako
25 lerro baino
luzeago idaztea
gutun hauetan.
Idatzi duenaren
izen-deiturak,
telefonoa, helbidea
eta Nortasun
Agiriaren fotokopia
agertu beharko
dira. Laburtu
berrak izanez
gero, **ttipi-ttapa**
bere esku izanen du
horretarako
eskubidea.
Ez dira
argitaratuko beren
nortasuna agertzen
ez digutenen
iritzirik.*

Bidelapurrak Belaten:

Abuztuaren 16ean igande on bat pasatzeko asmoarekin atera ginen etxetik, Belate gainean bere-bila utzi eta Antre Mariaren Monastegi edo antzinako ospitalea ikustera joan ginen, ordu bateko joan-etorria egina eta... gure ko-txea eta beste bi, hirurak kristala hautsi, zerradura ere bai eta aurkitu zituzten gauza guziak lapurtu zizkiguten, gure boltsa, bazkaria, dirua eta dokumentazio guztia. Jakinaren gainean jarri nahi nuke jendea, guri bezala gerta ez dakion.

ANGEL AROZENA URROZ
ERRETERIA

ttipi-ttapa



948 631 188

*Zure
publizitaterik
onena*

ttipi-ttapa

Ameriketara
bidaltzeaerdi
prezioan

gure bitartez

Franken Kontzertatuari
esker, aldizkaria guk bidali
ezkero, zuk bidalita baino
erdi prezioa kostako zaizu.

Iparaldetik deitzeko 19-34
Hegoaldetik deitzeko

948 631188

 **Patxi ZABALETA** HBko parlamentaria. Leitzatik

Bake giroan



ETAren su-etenak eta Lizarrako Itunak egoera berri bat sortu dutela Euskal Herrian ezin du inork ukatu. Etorkizunean egoera berri honek aldaketa gehiago ekarriko ditu eta orain ahalegin eta saio bereziak eskatzen dizkigu guztioi.

Lizarrako Itunak adostasun politiko berriak eta bultzapen politiko indartsuak gauzatu ditu. Hiru ezaugarri jarri beharko genizkioke egoera berri honi: 1- Gizarteko arazo eta gatazkak elkarriketataren bidez konpondu behar direlako adostasuna. Euskal Herriak bakearen premia eta nahia adierazi ditu behin eta berriro, baina hemen ere, beste edozein herrialdetan bezala, eta Irlanda da azken adibidea, bakea elkarrekiko adostasuna lortuz eskuratu behar da. 2- Euskal Erkidego Autonomikoko eta Nafarroako erakunde autonomikoak zaharkiturik eta agorturik daude. Beste egitura batzuk behar ditu gure gizarteak datozen denboren eronkari aurre egiteko. 3- Konponbideak gizartearen erabakietan eta borondatean oinarritu behar du. Horregatik, demokraziaren ildotik eta herrien eskubide nagusia den autodeterminazioan aurkitu da elkarrekiko adostasuna eraikitzeke guinea.

Lizarrako Ituna ez da abertzaleen arteko akordioa soilik, baizik eta autodeterminazioaren alde dauden indarren adostasuna, abertzaleak nola ez abertzaleak. Gainera herriaren baitan gelditzen bada azken hitza, Nafarroa eta beste euskal lurraldeen arteko harremana ere horretantxe oinarritu behar da. Abertzaleok ez

genuke nahi eta ez genuke onartuko ere Nafarroako gehiengoaren aurkako erabakirik, baina ezin dugu ontzat hartu ere Nafarroaren etorkizuna arrotzen eskuetan uztearekin. UPNk, ordea, gaitzetsi egin beharko du hainbestetan errepikatu duen leloa hori, zera alegia, Estaduko indar politiko nagusiek, PP eta PSOEek, ezarririk utzi behar dutela behin betikoz Nafarroaren bakararautononomia.

ETAk su-etena jakinarazi duenean ez du baldintza edo epe zehatzik jarri. Indar politiko eta sozialien eskuetan gelditzen da be-

Indar politiko eta sozialen eskuetan gelditzen da, beraz, aurrepausak emateko erantzukizuna. Su-etena ez da bukaera bat.

raz, aurrerapausoak emateko erantzukizuna. Su-etena ez da bukaera bat. Lizarrako Itunak dioen bezala, bake-giroa ezinbestekoa da elkarriketataren bitartean aurrerapenak egin ahal izateko eta su-etena horixe da, batipat, elkarriketarako giroa. Konponbideak demokraziaren ildoan murgildu eta sakontzetik etorri beharko du. Horrelaxe dio orain dela bi urte eta erdi ETAk kaleratu zuen Alternatiba Demokratikoak. Han aipatzen diren hainbeste ideia eta helburu bete du Lizarrako Itunak, baina garrantzitsuena horixe da, konponbideak herriaren hitza behar duela helmuga.

Egoera honetan Madrilgo Gobernuak erantzunkizun handia dauka. Ez du bultzatu ahalegin hau, Lizarrako Hitzarmenaren aurka jokatu du, su-etena oztopatzen edo zailtzen saiatu da. Bakegintzan bidea luzea da oraindik, baina bake-giroan gaude.

 **Lander SANTAMARIA** Kazetaria. Elizondotik

Filmeetako herrialdea



Zineak historia luzea du Bidasoaldean, antzinako zinema desagertuetatik hasi eta eskualdean filmatu diren pelikula mordoa kontutan hartuta.

Telebista –familiarterako giroarekin akabatzeke mehatxuka ari den munstro hori– izan da, batez ere, Bidasoa bazterreko ia zinema guztiak desagertzearen errudun zuzena.

Egoera honetan zinemaldi bat antolatzeke, ez dago dudarik, benetako adorea behar da. Aitzitik, nere ustetan (eta hau iritzi arras pertsonala da, noski), Bidasoako Filme Laburren Zinemaldia kulturalki justifikatuta dago, baina, honekin nahikoa litzatekeen arren, gainera, gure inguruan gertatzen diren ekitaldi aipagarrienetako bat izateko sortua da, edo hori da, behinik-behin, helburua. Zentzu honetan, gogoratu behar dugu Nafarroa osoan gisa honetako ekimen bakarra dela. Aunitz dira Bidasoaldeko I. Filme Laburren Zinemaldi honetan egindako akats eta okerrak, batez ere esperientzia ezaren erruz: publikizitate eskaxa, antolakuntzan hutsuneak (Elizondon lehen-dabiziko egunean ikusleek garraiatu behar izan zituzten aulkiak), sala desegokiak Lesaka eta Elizondon, eta Doneztebeko klausura eguna batere xarmarik gabena suertatu zen.

Baina, dena den, aztertu, birplanteatu eta zuzendu beha-

rreko alderdi ilun horien artean izandu dira ekimenari bere balioa eta aitzinera segitzeko animoak ematen dituzten alderdiak ere: partehartzea ugaria izandu da (jatorri ezberdineko 21 filme), zuzendari eta aktoreen asistentzia nahiko ona, eta guztiz segurua da agertu ziren ikusle guztiak (200 lagun eskas) arras kontent atera zirela pelikuletatik.

Nere kasuan, balorazio positiboa egiten dut, 6 bat emanen nioke nota, edo 5,5 bat kritikoa izanik, justuan

Aztertu, birplanteatu eta zuzendu beharreko alderdi ilun horien artean izandu dira ekimenari bere balioa eta aitzinera segitzeko animoak eman dizkioten alderdiak ere: parte hartze ugaria, aktore eta zuzendarien presentzia...

gainditua baina ilusioz beterik. Batipat, zinemaldiaren proiektua luzera begira sortua izan zelako, eta hurrengo edizioetan ikusiko denez, oraingoa baino osatuagoa eta konplexuagoa izanen delako: proiektio monografikoak, erakusketak, kontzertuak eta mintzaldiak, eta ez aste batean, baizik eta denbora luzeagoan.

Zinemaldia ahul eta ihar jaita da, baina ilusio handi batekin, eta uste dut laguntza eman behar zaiola aitzinera ateratzeko.

Gurea, izan ere, afizioz eta tradizioz, eta filme aunitzen eskenatoki izateagatik (laster bertze bat iragarri dute)... pelikuletako herrialdea baita.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario de Navarra, 98ko irailaren 18a

«Azken 30 urteetan bezalaxe, ETArek erritmoan segitzen dugu dantzari»

«Orain partidu bakoitzak erakutsi beharko du zer nolako ideiak dituen gizartea hobetzeko».

Pello SALABURU
Arizkungoa, EHUko errektorea
Diario de Navarra 98-IX-18

«Su-eten hau oso ondo da, eta irauten badu horrek erran nahi du aurrera goazela».

«Orain politikariek aprobetxatuko dute beren poseak egiteko, baina ez zaie kasu sobera egin behar».

Eduardo GIL BERA
Narbartekoa, idazlea
Egunkaria, 98-IX-18

◆ **Zein da gehien gustatzen zaizun dantza?**

◆ Horretan ez daukat dudarik, Beteluko jota.

◆ **Irakasteko zailena, berriz?**

◆ Hori bera, niri ere aunitz gosta zitzaidan ikastea eta.

◆ **Zein dira dantzak ikasteko traketsagoak, neskak ala mutilak?**

◆ Denetik izaten da, baina biak berdintsu.

◆ **Amadeo eta zure lana nahiko eskertzen dela uste al duzu?**

◆ Jendearen aintzinean egiten dugu lana eta nere ustez bai.

◆ **Zenbat aldiz izan duzu dena pikutara bidaltzeko gogoia?**

◆ Besta inguruan larri xamar ibiltzen gara, baina uzteko gogoia inoiz ez.

◆ **Bestak gainen ditugunez, ze egun berexiko zenuke zuk?**

◆ San Migel eguna eta herri bazkariaren egunaren artean ez nuke jakinen zein berexi.

◆ **Zerbait kenduko al zenieke beste?**

◆ Kendu deus, baina artzain-zakur lehiaketak ez dit deus erraten.

◆ **Gauzez besta eta egunez lo?**

◆ Egunez izaten diren gauzak ere gustoko ditut, eta nahiko lan.

◆ **Bestetako otordu goxoetatik, zein duzu janaririk gustokoena?**

◆ Bestetan arrain-zopa, baina bertzela paella gehiago.

◆ **Besta ondotik nora joanen zinateke oporretara?**

◆ Saloura, Portaventura bertan dagoelako.

◆ **Bertan bizitzera geldituko al zinateke?**

◆ Ez, orain nagoen lekuan hagitz gustora bizi naiz.



Iñigo IRIGOIEN
ETXEBESTE

Dantza irakaslea. IGANTZI.

 **Ostargi Optika**
Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 - 63 07 53

ttipi-ttapa *Zure publizitaterik onena*
☎ **948 631188**



Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluzak	Erlaizak
Orna antzinak	Moldurak
Leihok	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujantxoa' Mazzoa
Zahar antzekoa Txapeantxa

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

PIKABEA *pinturak*
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • BERA

EDARRIAK



Bidasoa K/62 - 31700 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

1998-99 Ikasturtea: Matrikulazio datuak

Eskola publikoak

	Adinaren arabera			Euskara eredia			Guzira	3 urtekoak
	Haur H.	Lehen H.	DBH	A	B	D		
Arantza	8	31	15	-	-	54	54	1
Areso	4	16	-	-	-	20	20	1
Baizan ⁽¹⁾	65	91	-	20	-	156	176	26
Beintza	3	12	-	-	-	15	15	1
Bera	19	46	-	-	-	65	65	6
Bertizarana ⁽²⁾	11	38	-	-	-	49	49	3
Doneztebe	76	162	-	24	56	168	238	23
Elizondo	71	147	-	84	-	134	218	20
Eratsun	5	6	-	-	-	11	11	2
Etualar	18	37	-	-	-	55	55	6
Ezkurra	-	5	-	-	-	5	5	0
Goizuela	27	50	15	-	-	92	92	5
Igantzi	13	24	-	-	-	37	37	3
Iñuren	13	39	-	-	-	52	52	7
Leitza	69	173	-	-	-	242	242	17
Lesaka	42	62	-	-	-	104	104	14
Saldias	1	10	-	-	-	11	11	1
Sara	-	-	-	23	93	-	116	-
Sunbilla	11	36	-	-	-	47	47	4
Urd-Zugarra	13	19	4	4	13	19	36	3

(1) Baizango herrietako ikastetxe guzietako datuak batera, Elizondoko San Joo Javier eziz
(2) Legasa eta Narbaroko ikastetxeetako datuak batera

Ikastolak

	Adinaren arabera			Guzira	3 urtekoak
	Haur H.	Lehen H.	DBH		
Bera	28	102	95	225	8
Elizondo	45	130	-	175	15
Lesaka	26	43	-	69	10
Sara	12	-	-	12	5

Pribatuak

	Haur H.	Lehen H.	A	B	3 urte
Bera	25	58	7	76	7
Sara	75 haur, 55 elebidunak, 20 frantses hutsean				

Institutuak

	DBH	H.Z.	Batxil.	A	B	D
Bera	240	80*	69	126	109*	181
Doneztebe	218	-	-	29	-	189
Elizondo	-	110*	37	13	110*	24
Leitza	178	-	40	5	0	213
Leharoz	302	17	144	153	-	310

* Heziketa Zikloko ikasleak auberatzen diren bigarreneko ikastetxe modua dute. Guk B ereduak balira bezala sartu ditugu.

3.717 ikaslek hasi dute 1998-99 ikasturtea

Horietatik %73,5 euskara hutsean ikasiko dute

3.717 ikaslek hasiera eman diote 1998-99 ikasturteari eskualdeko ikastetxeetan. Horietatik 3.220 derrigorrezko hezkuntzan arituko dira (640 Haur Hezkun-

tzan, 3 eta 6 urte artekoak; 1.377 Lehen Hezkuntzan, 6 eta 12 urte artekoak) eta 1.067 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (12 eta 16 urte artean).

Gainerako 497 ikasleak, Batxilergoak, Heziketa Zikloak edo Heziketa Berezian eman dute izena.

Euskarari dagokionez, aipatu 2.734 ikas-

lek (%73,5) euskara hutsean burutuko dituztela beraien ikasketak, 457k euskaraz eta erdaraz eta 488k erdaraz hutsean.

Nabaria da, halere, zenbat eta ikaslearen adinartikiagoa izan, orduan eta gehiago direla euskara hutsez ari direnak. Adibidez, aurten, 3 urterekin klasean hasi diren 188 haurretatik hogeira ez dira ailegatzten erdaraz hutsezko eredu hautatu dutenak,

guziak Baztanaldean eta Saran. Bortzirietan, 12 urteak arte apenas ez dago ikaslerik A eredu (erdaraz hutsean).

Erdaraz hutsean ari diren gehienak, aldiz, DBHko azken zikloetan edo Batxilergo eta Heziketa Zikloetan ari dira, hau da, hamalau urteretik goitikoak dira. Eredu elebidunak, berriz, Sara eta Berako ikastetxe pribatuetan dauka indar gehien.

Dia %
Autozerbitzua
deskontua

**Hamabostero
ofertak**

Zatoz eta

Eztegara, 6
© 948631403•BERA

948 630 800

AIZAGA

• Gidatzeko karneten tramitazioa
• Karneten berritzea

**kalotxa
zapatadenda**

kanttonberri 6 Bera 948.631516

**KRISTALDEGI
ZERBITZUA ETXERA**
(zonalde osoan)
© 929 443 765 • BERA

**ROMANO
PINTURAK**

Barnealdeko dekorazioa,
pintura, papera, moketa,
kautxoa eta sintasola.
© 948630941•948631137•BERA

Ibardingo depuradoraren isuriek Xantel erreka kutsatu dute

Hamarnaka amuarrain hil dira oxigeno faltagatik

ASIER GOGORTZA

Arazoa ez da gaurkoa. Xantel erreka baxterean bizi diren herrietarak aspaldidanik ohartuak ziren erreka nolabaiteko kutsadura bazuela. Tarteka, euri erauntsien ondotik, arrain hilak ikusten zituzten errekan beheiti. Azkeneko erauntsiekin, ordea, lohi kutsakorrak erreka guzi-guzia kutsatu zuen eta sarraskia inoiz baino nabariagoa bihurtu zen. Begi guziak, orduan, Ibardingo depuradorari begira jarri ziren, han baitu sorburu Xantel erreka kutsadurak.

TTIPI-TTAPAK Nafarroako Gobernuak iturrietatik jakin duenez, depuradora Intzolako zaborte-giko ur zikinak garbitzeko bakarrik zegoen pentsatua hasiera batean, baina geroztik Ibardingo bentetako ur zikinak ere bertan sartu zituzten. Horrek depuradoraren kapazitatea gainditzea ekarri zuen, eta lohi kutsakorrak erreka joatea zuzen-zuzenean. Lohi hori pilatua gelditzen da erreka-zolan, eta urak haunditzen direnean, erreka guzia kutsatu egiten da arrainen heriotza eraginez.

Dena den, depuradoran anpliatzeko obrak



Espainiako Mountain Bike kopa Miriam Blasentzat

Jautsierako modalitatean, Espainiako Kopako hiru probetan gailendu zen beratarra. Azken proba puntuagarria Bizkaian irabazi zuen, Artxandatik Deriora burutu zen jautsieran hain zuzen, baina lehenagotik Pontevedran eta Geronan irabaztea zer den badaki Miriamek.

Garaipen honekin akitutzat eman du denboraldia, eliteko txirrindularien artean eman duen lehena. Hala ere, erran behar aski ongi moldatu dela, eta Europako txapelketan 16. egin ondotik talde franko dabil bere atzetik.

egin behar dituztela adierazi du Nafarroako Gobernuak prentsa ohar baten bidez. Heldu den hilabetean deialdia zabalduko da obra eginen duen enpresa hautatzeko eta urteberritan hasiko lirateke lanak.

Tristeia da horrelako egoera larria gertatu behar izatea arazoak konturatu eta irtenbideak bilatzen hasteko. Beranduegi ez izatea espero dugu.

Artista gazteen erakusketa eginen da kultur etxean

Larunbata honetan, musika pixko bat eta artisten presentziarekin, ez-ohiko erakusketa bat irekiko da kultur etxean. Bertan, erakusketa 'ofizialagoetan' nekez ikus ditzakegun artista gazteen lanak zintzilikatuko dira. Azkoitiko Txabi eta Berako Mariaren eskultura eta mar-

goak aurkituko ditugu batetik –bi hauek urtarrean Bidaxka ostaturan paratu zuten bertze erakusketa bat–, eta bertetik, Juanan eta Alaitzen lanak ere egonen dira ikusgai (collageak eta argazkiak).

Urriaren 11 bitartean bisitatu ahaliko da erakusketa hau.

flash

❖ **1966-1967...** urteetan jaio zirentzako afaria izanen da urriaren 2an. Interesatu ekin 948631199 telefonora deitu behar duite urriaren 1a baino lehen.

❖ IV Dantzari Ttiki Eguna

Igande honetan, irailak 27, ospatuko da Beran Dantzari Ttiki Eguna edizio berri bat. Aurten Elgoibar, Zangotza eta Portugalete eta Amurrioko dantzariak etorriko dira herriera. Goizean karrikaz-karrika dantzatu eta gero, eta eguerdiko 1,30etan Altzaten elkartuko dira denak Agurra eta Agintarrena dantzatzeko. Arratsaldeko 5etan egingen da jaialdi nagusia Eztegarra pilotalekuan.

❖ 'Gran facha'

Bertzerik badirudi ere, 3.046 metroko mendia izena da hori. Agerra Mendi Taldekoak asteburu honetan saiatuko dira tontor hori egiten. Larunbata goizean abiatuko dira eta igande arratsalderaino ez dira itzuliko. Izena emateko 948 634 199 telefonora deitu behar da.

❖ Barojatarrak...

eta 98a" izeneko hitzaldi zirklo publiko dextente bildu zen. Afari batekin eman zitzaion akabera.

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

SAROBÉ
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

LOZTEKI-JUKA
Altzate, 19 • 948630786 • BERA

BOTXO
ostatua
Tfnoa: 948 630 052
Zalain Auzoa, BERA

➔ **LESAKA**

Katazpegiko zabortegian gai kutsakorrak aurkitu dira

Aceralia lantegia izanen litzateke horren erruduna

AITOR AROZENA

Katazpegiko zabortegian Aceralia lantegiak botatzen dituen hondakinetan gai kutsakorrak aurkitu dituzte. Salaketa Guardia Zibilaren Natura Zaintzeko Zerbitzuak, SEPRONAK, egin zuen eta momentu honetan Iruñeko Bigarren Instrukzio Epaitegia aztertzen ari da delitu ekologikorik ba ote dagoen. Epaitegi honen esku daude Aminea erre-kako urari egin zaizkion analisiak, baita amoa-rrainei eta zabortegiko lurrari egin zaizkionak. Analisi horien arabera, metal astunen arrastorak aurkitu dituzte Aceraliak Katazpegiko zabortegian botatzen dituen hondakinetan.

Jakina denez, Katazpegiko zabortegia ez dago prestatua gisa horretako hondakinak hartzeko, eta horixe da, hain zuzen ere, Instrukzio Epaitegiak Lesakako Aceraliari leporatzen diona: sustantzia arriskutsuak botatzea behar bezala prestatua ez dagoen zabortegi batean. Hortik letorkioke, hain zuzen, delitu ekologikoaren egile izatearen salaketa. Indarrean dagoen Europar Legislazioaren arabera, he-



Katazpegiko zabortegira Aceraliako hondakinak botako dira. D.Navarra

mendik aitzinera gisa honetako hondakinak bakarrik zabortegi berezietan bota ahal izanen dira.

1995. URTEAN EGINDAKO ESTUDIOA

Dirudienez, fiskalaren esku 1995. urtean egindako ikerketa dago eta geroztik Katazpegiko egoera aunitz aldatu omen da, Jose Luis Etxegarai alkatearen erranetan. Gaur egun, Aceralia Nafarroako Gobernuko Ingurugiro Sailarekin eta Lesakako Udalarekin solasean ari da, zabortegia behar bezala moldatzeko eta sustantzia kutsakorrak Aminea erre-kara ez ailegatzeko. Bertzalde, al-

katearen erranetan, guardia zibilaren salaketa zenbait datu bitxi ere ageri dira: «*zabortegia baino 50 metro lehenago erre-kako uretan egindako analisisan kobrea eta karea ageri da eta behin zabortegia pasatuta egindako analisisan, berriz, sustantzi hauek ere ageri dira, baina portzentai ttikia-goan*».

ZABORTEGI BERRIA OTSANGON

Edozein modutan Aceralia kutsadura ez gertatzeko beharrezko neurriak hartzeko prest omen dag.

Gai honekin lotuta, joan den uztailaren 31ko Udalaren osoko bilku-

ran zabortegiaren gaia aztertu zen. Nafarroako Gobernuko Ingurugiroaren Kalitate Zerbitzuko teknikari batek egindako txostenaren arabera, Aceraliako hondakin industrialak eta zabor arrunta elkarrekin botatzeak arazok sortzen ditu Katazpegiko zabortegian. Bere ustez, udal zabortegia paratzeko lekuri proposena Otsango da –Zala eta Txantreko harrobia ere aztertu ziren–. Honenbertzez, Udalak ahobatez onartu du herriko lurra eta obretako zaborrak Otsangon eginen den zabortegira botatzea eta Aceraliako hondakinak Katazpegira eramanez dira.

▼ **flash**

❖ **Erretiratuak Errioxara**

Ortziral honetan, irailak 25, Errioxara joanen dira San Fermin elkarteko ki-deak. Goizeko 8etan abiatuko da autobusa eta Altsasu, Gasteiz eta Santo Domingo de la Calzadatik pasatu ondotik Biasterin (Laguardia) bazkalduko dute. Itzulia Lodosan barna eginen dute, bertako kontserba-fabrika bat ikusiz.

❖ **Nazioarteko V. Xake Irekia**

Argentinako Diego Adla nagusitu zen Beti Gazte elkarteak antolatutako 'V. Lesakako Herria Xake Irekian'. Bigarrena Fressinet frantziarra eta hirugarrena Del Rey argentinarra izan ziren. Guzura 85 xakelarik parte hartu zuten irailaren 5eko proban. Lehen lesakarra Manuel Reyes izan zen, 57. postuan.

❖ **Lorategi eta berdeguneen zaintzea**

John Telletxeak zainduko ditu herri-guneko eta Alkaigako industrialdeko lorategi eta berdeguneak. Berea izan zen 5 eskaintzen artean egokiena, Udalaren ustez. 2.768.746 pezetan apainduko du herri-gunea eta 1.740.464 pezetan Alkaia-ga.

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • ☎ 948637944
LESAKA

Manuel Zamorano Aguilar
Bittiria, 37 • LESAKA
☎ 989 04 26 71

Kizkur
leapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behe
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Behoko Plaza 8, LESAKA

ETXALAR

Lizarietako aduana-etxea ez da Udalaren esku gelditzen

Hala jakinarazi dio Nafarroako Gobernuak

PELLO APEZETXEA

Aduanatarako erabilitako etxea, bere esku geldituko zelakoan zegoen Udala. Orain, ordea, Iruñetik etorritako berrien arabera, ez da horrela izanen. Izan ere, etxea zertarako erabili Nafarroako Gobernuak eman beharko du baimena, eta etxea zaindu bertzerik ez du egiten ahal izanen Udalak. Horrela, bada, ez zaio lehen pentsatu zuen lur trukatzeko edo antzekorik egiteko aukerarik geldituko, nahiz eta etxea eraikia dagoen lurra herrilurra izan.



Sei milioi eta erdi jasoko ditu Udalak Usategietako ehiza-postuen enkantetik, iaz baino dexente gehiago

TTIPI-TTAPA TELEBISTA

Usategietako ehiza-postuen enkantea

6 milioi eta erdi jasoko ditu aurten Udalak Usategietako ehiza-postuetatik. Bero-bero etorri ziren, nonbait, ehizturiak, eta, jo eta jo, hirukoiztu zituzten, banaz

bertze, postuen prezioak. Dena den, ez zen parapeto izenekoa izan gehien ordaindua, zenbait urtez bezala. Ezta sareetakoak ere. Hamargarren postua izan zen txapeldun, 1.379.000 pezeta eskeini baitzi-

tiozten. Hamahirugarren postuak hartu zuen sos gehien, hurrengo, 740.500 pezeta. Parapetoa dugu hirugarrena, 508.000ekin. 300.000 ingurukoa da multzo bat, eta merkeagoak gainerakoak.

Hartzaileak, Irungoak dira gehienak, zazpi. Errenteriakoak lau, Berakoak eta Etxalarkoak hiru, Olaguekoak bi, eta Baiona, Donostia eta Hondarribiatik bana. Aipatutako diru kopuruak aldaera zerbait iza-

ten ahal du, sesta deitutakoa emateko egunak ez baitira oraindik pasatu. Eta, gero, prezio horiei %18,5 gehitu behar zaie, hau da, BEZaren %16a eta gastuetarako Udalak kentzen duen %2,5a.

flash

Santakruzeko besta

Buruilaren 14k Santa Krutz Eguna ekarri, eta, aski eguraldi txarra eginagatik, herritar multzo polita bildu zen ermitan. Meza egin ondotik, auzoek eskeinitako hamaiketakoak eskertu zuten.

Gripearen kontrako txertoa

Aurtengo txerto ematea aste honetan hasi da. Hiruetan hogeita bortz urteak beteak dituztenek, edo eta bihotzeko gaitzak edo diabetisak jota daudenek dute lehentasuna, eta horiek hartzeko kontseilua ematen ari dira.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESAKA

Txema Etxarte
Zolen akutzilatze eta bernizatze profesionala
© 948 637439 • 31700 LESAKA

LORE ETXAK
Lore eta landareak
Frain auzoa • © 948637826
LESAKA

LORE ETXAK
© 948631076 • BERA

BORTZIRI UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxe: 948 637 266

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
arkitekturen bulegoa
Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hobena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - © 948637264

Irailaren 27a, igandea
5etan XIX. Artzain Zakur Lehiaketa.

Irailaren 28a, astelehena
Bezpera

8etan Txupinazoa, LARRAKAITZ txarangak eta txanpainak lagundurik. Ondotik Kankailu eta Buruhaundiak ibiliko dira karriz karriz. **12etan** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Irailaren 29a, asteartea
San Migel Eguna

10,30etan Karrika buelta herriko txistulari eta dantzariekin. **11etan** Meza Nagusia Herriko Abesbatzak kantatua. **12etan** bertako dantza taldearen saioa. **6etan** 'Irungo Atsegina' Akordeo Orkestraren emanaldia. **7,30etan** Bertso Saioa: Jon MAIA, Xabier LEGARRETA, Oihane ENBEITA eta Estitxu AROZENA Gai-jarzailea: Alaitz REKONDO. **9etatik 10etara eta 12etatik aitzinera** dantzaldia ARKAITZ taldearekin.

Irailaren 30a, asteazkena
Ezkonduen Eguna

10,30etan Karrika buelta. **12etan** Ajoarriero Txapelketa. **5,30etan** Pilota parti-



Dantzari ttikien saioan eta betizuetan jende aunitz biltzen da. Bietan ere, ikusteaz gain dantza egiteko edo paseren bat emateko aukera izaten da.

Argazkiak:
 Oskar TXOPERENA



duak: Zubieta-Altzuguren, Irazoki-Retegiren aurka. Beloki Il-Okiñena, Leiza-Errandonearen aurka. **7etan** Kankailu eta

CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZUN S.L.
 Inkinaria eraikuntza, aldaketak eta despiezea, antenimendu mekanikoa, Torno, fresadorak, errektifikadorak
 Igantzioko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

SAN JUAN XAR KOOPERATIBA
 Pentsu, ongarrri eta erreminta salmenta
 Tfnoa: 948 637 730 • IGANTZI

ttipi-ttapa internet
<http://www.jalei.com/txapagunea/ttapi-ttapa>
 E-mail: ttapi-ttapa@txapagunea.jalei.com

MASAIA eta BIZKORTZE ARIKETAK
Txomin Irazoki (fisioterapeuta)
Ongi pasa Sanmigelak!
 Tel: 948 631391 - 970 471200
 Eztegara 20, behea • BERA

BERRIZAUN TALERRAK
 LESAKA GASOLINDEGIA
 IMANOL TELLETXEA ZOZAIA
Besta ederrak pasa!
 Tel. 948 637 460 LESAKA

BI-ENA oilotegia
 Arraultze freskuak
 © 948 637 379 IGANTZI
 © 948 630 047
 © 948 630 180 BERA

Buruhaundiak karrikaz karrika ibiliko dira. **Arratseko 9etatik 10etara eta 12etatik aitzinera** dantzaldia EGAN taldearekin.

Urriaren 1a, ortzeguna
9etan Gosaria Ziobi mendian. **9,30etan** Plater Tiraketa. **12etan** Betizuak. **2etan** Herri Bazkaria, Andoni EGANA eta Sebastian LIZASO bertsolariekin. **7etan** LARRAKAITZ txarangak animatuko ditu herriko karrikak **Gaueko 12etatik aitzinera** dantzaldia ETZAKIT taldearekin.

Urriaren 2a, ortzirala Haurraren Eguna
 Egun guzian haurrentzat jokoak eta gaztelu haizatuak. **5etan** Berendua. **6etan** Betizuak LARRAKAITZ txarangaren animazioarekin. **8,30etan** Buruhaundi eta Kankailuak karrikaz karrika ibiliko dira. **Gaueko 12etatik aitzinera** dantzaldia IZOTZ taldearekin.

Urriaren 3a, larunbata
5etan Herri Kirolak:
 • Proba Konbinatuan, Arraioz Igantziren kontra.
 • Lasto jasotzea.
7etan Betizuak ZIZKUITZ txarangaren animazioarekin. **Gaueko 12etatik aitzinera** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Ttikienak dira, seguraski, bestetan hobekien pasatzen dutenak. Beraien eguneko ekitaldiez gain, edozein egun musikariekin tablatuan dantzatzeko aprobeztatzen dute. Helduagoak ere, ez dira galtzen ez. Herri bazkarian izaten den umorea ikusi bertzela.

Argazkiak:
 Oskar TXOPERENA



BI-BIDE
 ostatu
 janaridenda
BESTA ALAITSUAK
OPA DIZKIZUEGU
 Tfnoa: 948 63 72 78
 IGANTZI

ATM s.a.

 • Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
 • Enbalaketa elementuak eta flejeak.
 • Garraio zintak eta mahaiaik.
 • Mantenu rodilloak.
Igantzik Bentak • © 948 63 74 11

JOSE AGERRE
PINTURA LANAK

 • Fatxadak garbitu eta pintatu
 • Kanpo eta barneko pinturak
 • Papera lanak
 • Barnizatzeak
 • Gotelē
 • Moketa eta zintasol
 © 908. 97 93 06 • 948 637957 • IGANTZIKO BENTAK


JATETXEA
LA VILLA
Besta zorionsuak opa dizkizuegu
 Tfnoa: 948 63 72 90 • IGANTZI

IGANTZI
 OSTATUA • JATETXEA • HOSTALA
 IGANTZI ostatu-jatetxe-hostalak festa zorionsu batzuk opa dizkizue
 Karrika Nagusia • Telefonoa: 948 63 75 02

IGANTZI

VIII. mendi bizikleta ibilaldia erauntsien artean burutu zen

Emanuel Itoiz burlatarra aisa nagusitu zen

OSKAR TXOPERENA

Ezin izanen dugu aurten erran Mendi bizikleta Ibilaldia eguraldi ederrarekin burutu denik. Izan ere, aintzineko egunean euria hasi eta ez zuen igande goiz guzian momentu batean ere aertu. Dena den, eta aunitzez gutiago etortzea espero bazen ere, 70 txirrindulari hurbildu ziren izena ematera, gero ibilbide lokaztuari bi itzuli emateko. Erorketa aunitz izan ziren, baina, zorionez, inork ez zuen min handirik hartu.



Euri erauntsien artean txirrindulariek nahiko lan izan zuten zirkuitoan barna sortutako lohiaren aurkako borrokan. Halere, 70 bat txirrindularik parte hartu zuten Igantziko proban.

Argazkia: ttipi-ttpa telebista

**XABIER TELLETXEA
LEHEN IGANTZIARRA**

Joan den urtean igantziarra izan genuen garaile. Aurten, ordea, kanpotarrak izan dira hiru lehendabiziko postuen jabe. Emanuel Itoitz burlatarrak aisa

menperatu zituen bere arerioak, eta bi itzuliak lasai ederrean egin arren lau minutu pasatuak kendu zizkion bigarrenari, Javier Gimeno San Adriandarrari. Hirugarren Xabier Arrastia

irundarra izan zen, eta ondotik Xabier Telletxea eta Joxe M^a Goia igantziarrak ailegatu ziren.

Juniorretan Jabier Redin iruñearra izan zen nagusi, 15 urte bitarte-

koetan Joseba Apeztegia sunbildarra, 12 urte bitartekoetan Mikel Antxordoki eta 40tik goitikoetan Jabier Jurado donostiarra. Parte hartu zuten neska bakarrak Miren Mitxe-

lena eta Edurne Huizi izan ziren eta bere itzulitxo egin ondotik sariarekin joan ziren biak ere etxera. Espero dezagun heldu den urtean laguntza gehiago izatea eguraldiaren aldetik.

flash

❖ **Bestak irailaren 28tik urriaren 3ra**

Aitzineko orrialdean ageri denez, egitarau zabala izanen dugu aurtengo Sanmigeletan. Txupinazoa astelehenean botako bada ere, igandean, irailaren 27an burutuko da Artzain Zakur lehiaketaren hemeretzigarren edizioa.

❖ **ttipi-ttpa telebista bestetan**

Gauero-gauero bestetako irudiak agertuko dira ttipi-ttpa telebistan. Hemenetik aitzin, gainera, ortziraletan Izaskun Sein eta Izaskun Tapiak, herrian gertatutakoaren berri emanen dute.

TXOPERENA
GRUA ZERBITZUA
24 Ordu
TAILERRAK
SERBIZIOAK
948 637236 • 989 800914 • IGANTZI (Burlatarra)

SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUA
Klase guzietako aseguruak herrian bertan!
Oskar Txoperena • Baratzondo 1 • IGANTZI
Tel.Faxa: 948 637236 • Mug.: 989 800914

ttipi-ttpa
6.800 harpidedun
23.000 irakurle

IRUGLAS, S.L. GRABADOS

GRABATUAK:

- Sukalde eta bainurako entzimerak
- Granitoan
- Ispilu eta kristaletan
- Zeramikan
- eta edozein materialetan

Edozein marrazki edo argazkirekin

ESKUDO HERALDIKOAK
Ateen kristalak grabatzen ditugu, koloretan edo kolorerik gabe

Fraineko Bidea • Tfnoa: 948 637412 • Faxe: 948 637800 • IGANTZI

ARANTZA

Berrogeita hamalau ikaslek hasi dute ikasturte berria herriko eskolan

Haur bakarra hasi da aurten eta iaz baino sei gutiago dira denetara

ELIXABET ETA GARBINE

Irailaren 7an hasi zen ikasturtea. Aurten denetara 54 ikasle daude, hiru irakasle berrirekin. Lehenengo Zikloan (1. eta 2. maila) Axun Alkorta tolosarra izanen da, Hirugarren Zikloan (5. eta 6. maila), Carmen Iriarte irundarra eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan M^a Jesus Artoleta otsaigarra. Dagoeneko egiten dute lehendabiziko ateraldia. Joan den asteartean, irailaren 15ean, Berako Kultur Etxera joan ziren, Berako Musika Eskolak antolatutako entzunaldi pedagogikoetan parte hartzera. Arantzako eskolatik Lehen Hezkuntza-koak joan ziren. Beraiekin batera Igantziko eskolakoak eta Berako hiru ikastetxetako haurrak zeuden.



Azaroaren 1ean ospatuko den Baserritarren Egunean aurten ere ez da musika doinurik faltatuko

Artxiboa

Baserritarren Eguna azaroaren 1ean

Aurten ere Ekaitza elkarteak Baserritarren Eguna antolatuko du. Aurtengoarekin hirugarren urtea izanen da. Eguna azaroaren batean ospatuko da eta an-

tolatzaileek herritar guziaz animatu nahi dituzte gero eta garrantzi gehiago hartzen ari den egun honetan parte hartzeko.

Xehetasun gehiago datozen aldizkarietan jasoko dituzue.

Filme emanaldia pantaila erraldoian

Abuztuaren 28an gauetz plazan pantaila erraldoia paratu zuten eta pelikula bat ikusteko aukera izan zen. Nahiz eta gau hotza egin, jendea bildu zen

‘Solo en casa’ pelikula ikustera. Bertizko Turismo Partzuergoak antolatu zuen ekitaldia.

Ehizturiak ari dira urriarorako prestatzen

Urriroa heldu denez, ehiza garaia ere heltzar dago. Dagoeneko ehizturiak prestatzen hasi dira. Lehengo egun horietan pistak moldatzen aritu dira, Bagatxarren sei kamioi porlana bota dituzte eta Ekaitza hameka kamioi porlan eta bi kamioi *to-douno*. Masa, hondatuak zeuden tokietan bakarrik bota dute. Pista moldatzeaz gain, beraien txabolak ere txukuntzen ari dira, ehizturi aunitz baitago ia hilabete osoa bertan ematen duena.

Gaurgero, eskopetek ere dizdira ederra hartu izanen dute.

XATUBETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 948637027 LESAKA

ALBERGEA
JATETXEA

 © 948634179
ARANTZA

• bitxikeriak •
 • opariak •
 • enmarkazioak •
 Albistur, 39-K
 ☎ 948627542 • LESAKA

LESAKA

Toldos BAZTAN, S.L.
TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIURUA ETA KONPONKETA

- Kamioi eta industri-furgonetan errokulazioa (Errokulazio zerbitzua)
- Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
- Toldo korrederoak
- Bolketeeendako sareak
- Kamioiendako klase guzietako toldoak
- Pizina estaltzeko sareak
- Trinkajetarako Slingak

Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8
LESAKA (Zalain industrialdearen ondoan)
 Tel. 948. 63 10 03
 Mug.: 929 01 59 23

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
 Itzea, 4 • BERA
 © 948 630 763

MALEERREKA

Onddo eta Zizei buruzko Jardunaldien azken egunak Elgorriagan

Urriaren lehen asteburuan Kofradiaren kide berriak izendatuko dira

LORENA GALARREGI

Joan den asteburuan burutu da Elgorriagan Nafarroako Onddo eta Zizen Kofradiak antolatutako jardunaldien lehen zatia. Ekitaldi nagusia, Juan Mariezkurrena zenaren omenez antolatutako Literatur Lehiaketaren sari bana-keta izan da.

Halere, Jardunaldi hauek aitzinera segituko dute eta urriaren lehen asteburuan hainbat ekintza izanen dira. Honela, larunbatean, urriak 3, goizeko 10etan zuhaitz mikorrizatuen bisita eta garbiketa egingen da. Arratsaldeko 6etan, Ingurugiro, Turismo eta Mikologiari buruzko solasaldia izanen da, gaian adituak diren zenbait lagunen eta Nafarroako Gobernuko instituzioetako ordezkariekin.



Onddo eta zizen aitzakian, Elgorriaga inguruko ibilbideak ezagutzeko aukera polita eskaintzen dute jardunaldi hauek

Argazkia: Zaldua

Arratsaldeko 7,30etan berriz, onddo eta zizen kazuelen lehenengo lehiaketa egingen da. Bertan parte hartzeko gonbidapena igorri dute antolatzaileek.

Igandeko egitaraua, goizeko 10etan ospatu-

ko den Meza Nasusiarekin hasiko da. Doneztebeko Mendi Korallak abestuko du Juan Mariezkurrena, Salvador Arozarena eta Gabriel Perez Agoteren omenez egingen den mezan.

Goizeko 11etan iza-

nen da ekitaldi nagusia, Kofrade berriak izendatuko baitira eta kapak eta Urrezko Intsigniak ezarriko dira.

12etan Lehenengo Mikologi Lehiaketa gauzatuko da Salvador Arozarenaren omenez

Erlajazio ikastaroak Donamarian

Donamariako Bentan erlajazio ikastaroak hasi dira. Klaseak astearte eta ortzegunetan dira, goizeko 10etatik 11tara eta arratsaldeko 8etatik 9etara. 12 eta 16 urte arteko gazteek, larunbatetan, goizeko 10etatik 12etara. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko 948 450708 telefonora deitu behar da.

eta bonsayen erakusketazabalduko da. 2etan anaitasun bazkarian bilduko dira eta Napardi Korala aditzeko aukera izanen da.

Jardunaldi hauek akitzeko, arratsaldez musika izanen da.

IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

GAZTANDEGIA

LIZUN

Etxeko
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • **SUNBILLA**

ZALAIN

Zalain Auzoa
☎ 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK

DONEZTEBEN

MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • **LESAKA**
Tfnoa: 948450475 • **DONEZTEBE**

DONEZTEBE

Euskaltzaindiaren jardunaldiak burutuko dira asteburu honetan

Orain dela 75 urte herrian ospatutako Euskalegunak gogoratuz

PATXI IRIARTE

75 urte beranduago Euskaltzaindia Doneztebera itzuliko da. Asteburu honetan, 1923an herrian ospatutako Euskalegunak gogoratuko dira egitarau zabal batekin.

Ortiziralean, irailak 25, Euskaltzaindiaren hileroko batzarra egingen da Udaletxean. 4etan Jagon Sailaren II. topaketak hasiko dira udal liburutegian eta 6etan IV ahoskera jardunaldiak hasiko dira Dolors Poch Barcelonako Unibertsitat Autonomo Bellaterrako katedradora 'Ahoskeraren standardizazioa eta hizkuntzaren aldakostasuna' gaiaraz arituko da eta gero solasaldia egingen da.

**BATZAR IREKIA
ARRATSEKO 8ETAN**

Arratseko 8etan, Euskaltzaindiaren II. Euskalegunen 75. urteurrena dela eta, batzar irekia egingen da. Doneztebeko alkatearen ongi-etorriaren ondotik, Jean Haritschelhar



Euskaltzaindiaren Jardunaldien aurkezpenan erran zenez, duela 75 urte euskara gainbeheran zegoen Donezteben

TTIPI-TTAPA TELEBISTA

Euskaltzainburuak agurra egingen du. Ondoren, M^a Jesus Perurena, Doneztebeko institutuko zuzendari eta zinegotzia 'Doneztebe eta Malerrekako irakaskuntzan euskararen hedapena, azken 23 urteotan' gaiaraz mintzatuko da. Gero, Andres Iñigo ittundarraren txanda izanen da. Andres euskaltzain urgazlea, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria eta Iruñeko Hizkuntz Eskola Ofizialeko irakaslea da

eta bere solasaldiak '1923 urteko Euskalegunen oroimenez' izenburua izanen du. Ondotik, Periko Mindegia Malerrekako Euskara Mankomunitateko ki-deak Malerrekako euskararen egoeraz hausnarketara egingen du.

**IV. AHOSKERA
JARDUNALDIEN
JARRAIPENA**

Larunbatean ahoskera jardunaldien jarraipena izanen da eta

gai honen inguruan arituko dira hainbat aditu, 40 minutuko mahaingurutetan eta ondorengo elkarrizketa eta eztabaidetan. 10etan 'Euskal azentuak' gaia izanen da mahai gainean; 12etan 'Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak' izanen da solaspide. Arratsaldeko 3,30etan 'Ahoskeraren araugintza irakaskuntzan' gaia landuko da eta 5etan 'Ahoskeraren araugintza komunikabideetan'.

Herriko gazteen laxoa txapelketa

Doneztebeko gazteak jubencil mailako herriko laxoa txapelketa izena eman dute. Lau talde dira eta hiru jardunaldi eta finalean banatu dute txapelketa.

Lehen jardunaldian A taldeak (Josu Juarena, Luis Martin, Josetxo Martin eta Gorba Bidegain) 9-1 irabazi zion B taldeari (Joxe Manuel Mitxelorena, Eneko Telletxea, Mikel Mutuberria eta Luismi Garcia).

Bertze partidari, D taldeak (Patxi Olazar, Mikel Meoki, Julen Etxebeste eta Jabier Otermin) hiru jokutan utzi zuen C taldea (Jorge Mariñelarena, Santi Uterga, Joseba Legarra eta Mikel Mutuberria). Bigarren jardunaldia irailaren 12an jokatu behar zen, baina euriaren ondorioz ez zen jokatu. Hala bada, txapelketa ez da irailaren azken astean bukatuko, urriaren lehenengoan bai-zik.

Bertzalde, Laxoa Elkartek denboraldiaren balantze baikorra egin du eta neguan 'Paxaka' txapelketa jokatu dela aurreratu du.

**ETXANDI
TXOKO
jatetxea**

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
☎ 948 450 491




AMEZTIA

Jatetxea - Hostala

Especialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 948 450 028 • **DONEZTEBE**



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Ameztiako karrika • **DONEZTEBE**
Tfnoa: 948 450 306

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak, etab...

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54



Lehen, orain bezala, umore ederra izaten zen herri bazkarian. Puroa erre eta herriko lagunekin kontu kontari aritzeko aukera polita izaten zen bazkalondoko mahainguruan

Argazkiak: Nati Tellebeak utziak



Ortzirala, irailak 25
8etan altxaferoak eta ezkilak, bestari hasiera emanez. **8,30etan** zopak Herriko Ostatuan. **12etatik aurrera** dantzaldia ONOFRE akodeolariarekin.
Larunbata, irailak 26
10etan argi soinuak eta gosaria ostatuan. **12etan** pilota partiduak herriko gazteekin. **5etan** antzerkia, 'Kollins Klown' taldearen eskutik. Antzeslana: 'Ongi etorri Mendebaldera'.

Arratsaldez eta gauz ELURTE taldea.
Igandea, irailak 27
Jubilatuaren Eguna
10etatik aurrera bertako artisauek lanen erakusketak egiten dute. **1etan** aizkora apostua: Olasagasti-Peñagarikano, Mindegia-Larretxearen aurka. Lana: 12 enbor kanaerdikoak.
Goizez eta arratsaldez Gaztelu haizatuak eta kartsak, Disniruñaren eskutik.
6etan Herri Kirolak. Arra-

tsaldez eta gauz ELURTE taldea.
Astelehena, irailak 28
12etan mus txapelketa.
2etan herri bazkaria Peñagarikano eta Irazu bertsolariarekin. Ondoren, sokatira eta txingak, herrikoen artean.
Arratsaldez eta gauz dantzaldia JOXE ANGEL akordiolariarekin. **10etan** xingarra jatea plazan.
Asteartea, irailak 29
San Migel Eguna
11etan herriko gaztetxoek

kalejirak egiten dituzte. **12etan** Meza Nagusia, herriko zaindariaren ohorean. **1etan** luntx Herriko Ostatuan. **1,30etan** aizkora apostua. **5etan** Gorritiren animalien erakusketa. **6,30etan** Haur Jokoak eta

ondotik txokolatada. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia SALABERRI akordiolariarekin. **Goizeko 5ak aldera**, beste akabaila emanen zaie herriko karririk garbituz.

ttipi-ttapa
 internet
<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>
 E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735 • IRUN © 943622305

Angie
 © 948 45 01 02
 Elizagibela, 7 Behea - DONEZTEBE
Ingelesa ikasteko modurik errax eta atsegina
 Irakasle amerikarra, multimedia-ordenagailuak, bideoteka, etabar.
 98-99 ikasturterako matrikula zabalik

AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA
MENGHINI AKORDEOIAK Angel Manuel Belio
 AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU
 Deskontuak akordeoiak erosterakoan
DOMINENEA Etxea
San Andres Karrika, 40 NARBARTE
 © 943 - 61 50 55

DROGUERIA MOLINERO

- DROGERIA • LURRINGEGIA • OPARIAK •

Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • © 948 63 02 40 BERA

BERTIZ



Asier Altunaren 'Txotx' izan da Euskal Herrian ekoiztutako filmerik onena

TTIPI-TTAPA TELEBISTA

Bidasoako Filme Laburren I. Zinemaldira hogeita bat lan aurkeztu dira

'En medio de ninguna parte' filmeak irabazi du Urrezko Iratzea

TTIPI-TTAPA

Irailaren 12an banatu ziren Bertizko Partzuergoak lehen aldiz antolatutako Filme Laburren I. Zinema Lehiaketako sariak. Lehen edizioa izateko aski arrakastatsua suertatu da lehiaketa, 21 lan aurkeztu baitira. Horietatik bederatzi Euskal Herrikoak ziren eta gainerakoak Espainiatik etorritakoak.

Sariei dagokienez, Urrezko Iratzea eta horrenbertez, milioi bat pezeta 'En medio de ninguna parte' filmak eskuratu zuen. Saturnino Garciak zuzendutako 'La Raya' laburmetriak bi sari eskuratu zituen. Alde bate-tik, bigarren saria (Zilarrezko Iratzea) eta, bertzetik, bere mezu ekologikoarengatik brontzezko iratzea.

Brontzezko bertze hiru

Iratze banatu ziren. Euskal Herriko filme onenari emandako saria Asier Altunaren 'Txotx' pelikulak eraman zuen. Animazioko filme onena 'Okupa 2' izan zen epaimahaiaren arabera. 'La averria' laburmetriak ere 250.000 eskuratu zituen, bere bake mezuarengatik.

DATORREN URTEAN ESPERIENTZIA ERREPIKATZEKO ASMOZ

Bertizko Turismo Partzuergoko ordezkariak pozik ageri ziren lehen zinemaldi honek lortutako parte-hartzaile kopuruarekin eta filmeen kalitatearekin. Datorren urtean ere lehiaketa egiteko asmoa dute, izan ere «hone-lako lehiaketen berri ahoz-aho ematen da zinegileen artean eta datorren urtean ehun bat filme izaten ahal ditugu».

TANTTAKA TEATROA

SHAKESPEARE
OSOA
(guta gura-behera)

ADAM LONG, DANIEL SINSEN eta JESS WINFIELD-ekin
Bantolatu: JOSEBA ARKOIZA, ASIER NORRIZA, NIKO LIZAGA
Zuzendaritza: PHOENIX BARCO

Eguna:

Irailaren 27a, igandea

Ordua:

Arratsaldeko 7ak

Lekua:

Bordatxo Dantzalekuan

Antolatzailea:

Doneztebeko Udala

Laguntzaileak:

Mankomunitateko Euskara Zerbitzua

Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusia

GOIZUETA

Bigarren Jardunaldi Mikologikoak asteburu honetan ospatuko dira

Basauntz, Umore Ona eta Guraso Elkarten eskutik

ESTEBAN AROZENA

Hurrengo asteburuan, irailaren 26 eta 27an alegia, gure inguruan sortzen diren ontto eta perretxikoak hobekixiago ezagutzeko aukera izanen dute herritarrek berriz ere, bi egun hauetan ospatuko baitira II. Jardunaldi Mikologikoak.

200 ONTTO IAZ

Oraim urtebete, lehenengo edizioan, 200 perretxiko mota erakutsi ziren plazan, eta antolatzaile nagusia den Xabier Tabernaren ustez, aurten ere horrelako zerbait lortuko da seguraski. Horretarako, larunbat goizean mendiratuko dira onttozaleak Aranzadiko hainbat aditurekin batera, eta irteera honetan bildutako



Eliza berritua igandean zabaldu zen

Bi urtez lanetan aritu ondotik igandean zabaldu zen eliza. Goizeko 8etan Egunsentiko kanta egin zen, 11etan Meza Santua eta sendotzak eta 1etan hamaiketakoak. 55 milioi pezeta gastatu dira eta horietatik 18 milioi terdi herritarren aportazioei esker ordaindu ahal izanen dira.

aleak arratsaldean sailkatuko dira igande eguerdian burutuko den erakustaldirako.

Mahai gainetan egonen direnak ikusi, uki-

ttu eta usaintzeaz gain, Umore Onan prexitutako perretxikoak dastatzeko aukera ere eskainiko da aurten igandeko erakustaldiak irau-

ten duen bitartean. Udalak babestutako Jardunaldi Mikologiko hauek Basauntz, Umore Ona eta Guraso Elkarten eskutik datoz.

Umore Onaren pilota taldea hasi da Ohorezko Mailan

Lehenengo igandean Osasunaren kontra jokatutako partidarekin hasi zuen Umore Onak aurtengo Kluben arteko Espainiako txapelketako Ohorezko Mailako ibilbidea. Beste ale batean emanen dugu honi buruzko informazio luze eta sakonagoa. Oraingoz, bakar-bakarrik esan, asteburu honetan Iruñean neurtuko dituztela indarrak Obe-renarekin.

Urruñako Ikastolari eta EKBri dirulaguntza

Urruñan eginen den ikastola berriaren bi hari erosteko erabakia hartu zuen Udalak lehenengo ostiralean egindako osoko bilkuran. 20.000 pezeta erabiliko ditu horretarako. EKBri berriz 5.000 pezeta eman nahi zaizkio urtean zehar egiten dituen ekitaldietarako.

ARESO

Txakurrak ostiral honetan txertatuko dira

Industrialdearen 2. fasea Pagozelai-Goizabalek egingo du

JUANA M^a SAIZAR

Irailaren 25ean, arratsaldeko 3etatik 6etara eta ohiko tokian txakurren txertaketa egingo da. Derrigorrezkoa da lau hilabetetik aurrera, txakurrak txertatu eta identifikatzea; txakur helduen txertaketa bi urtetik behin egitea eta jabea identifikatzea (daramanaren nor-

tasun agiririk gabe ez da txakurrik txertatuko). Prezioak, txertaketa eta identifikazioa: 2.600 pta. Txertaketa soilik: 1.400 eta identifikazioa, 1.800.

Industrialdea

Industrialdeko bigarren faseko lanak Pagozelai-Goizabal enpresari eman zaizkio eta bertan saneamendua, bideak eta argi-

teria egingen dira.

Artzapezgoaren Eguna

Artzapezgoaren Eguna ospatu zen Aralarren irailaren 13an eta Aresoko gurutzea bertan izan zen, eguraldi txarrari aurre eginez, beste 25 gurutzerekin batera. Egun hau San Migel aingeruari bisita itzuli nahian egiten da.



San Migelen bisita itzuli dute herritarrek

LEITZA

Udal Hirigintza-planak herritarren interesa piztu du

Hainbat izan aurrerapena aztertzeraz Herriko Etxera joan direnak

JOSEBA AZPIROZ

Leitzako udal hirigintza-plana edo plan urbanistiko berriaren aurrerapenaren aurrean izandako partehartzearen balorazio baikorra egin du Udalak. Lan berriaren aurrerapena abuztuan zehar jendarean egon den bitartean herritar ugari hurbildu da aztertzeraz eta erreklamazio eta proposamenak bildu dira. Orain, aurrerapen horretan oinarritutako araudi urbanistiko berria aurkeztuko dio arkitektoak udalari, onar dezan. Onespeneren ondoren, alegazioak egiteko epea irekiko da. Nolako herria nahi dugun erabakitzeko garaia izanen da. Beraz, denok parte hartzea komenigarria izanen da.



Gripearen aurkako kanpaina Leitzaldeko Osasun Zentroetan

Gripearen aurkako kanpainari ekin diote Leitzaldeko Osasun Etxe eta kontsultetan. Honela, Leitzako Osasun Etxean, irailaren 21tik urriaren 31ra emanen dira txertoak, eguerdiko 12etatik 1etara. Aresoko kontsultorioan, berriz, kanpaina urriaren 2tik 23ra luzatuko da, hemen ere eguerdiko 12etatik 1etara

Artxibokoa

Zakurren txertaketa

Hilaren 29 eta 30ean, arratsaldeko ordu bietatik seiak bitarte, suhiltzailean parkean, zakurren txertaketa egingen da. Derrigorrezkoa da lau hilabete betetako zakurrak txertatzea eta za-

kur helduen txertaketa bi urtetik behin egitea. Txertaketa 1.400 pezetatik kobratuko dute, identifikazioa ('mikrotxipa') 1.300 eta biak batera 2.600 pezeta. Azken zentsuaren arabera 424 zakur dauzkagu Leitzan.

Zumarrestako pista ormigoiztatuko da

Zumarrestako pista-tik Goizuetako kamio-rra lohia eta harri kaxkarra erortzen dela eta, Nafarroako Gobernuak eta goizuetar batek zerbait kexa aurkeztu di-

tuzte Udaletxean, egoerak suposatu dezakeen arriskua dela eta. Kexa hauen aurrean, pista lehendabiziko berrogeita hamar metroak hormigoiztatzea erabaki du Udalak, azken batzarrean.

flash

- Udal kontribuzioak**
Udalak kontribuzioaren ordain-agiriak igorri ditu. Aurten 26,2 milioi bilduko ditu hiri-kontribuzioarengatik (erai-kuntzak); 1,9 milioi landa-kontribuzioarengatik (lurrak) eta 210.000 pezeta komunalen probetxamenduarengatik kobratzen den kanonaren bidez. Ordaintzeko epea urriaren 31 arte da.
- Karrape Irratia**
Eli Belauntzaranekek jarraituko du beste urte batez Karrape Irratiko esatari zerbitzua gestionatzen, udalak beraien arteko kontratua luzatzea erabaki baitu.
- Zuhaitz garbiketa eta ebaketak**
Iztegiko parajeen garbiketa-ebaketak egingen ditu Imanol Aranburuk. Eguraren truke 1,9 milioi ordaindu ditu. Hiru aldiz errepikatu behar izan da eskaintza, lehendabiziko bitan aurkeztu ziren proposamenak ezarritako prezioaren azpitik aurkeztu zituztelako.

SOULE
Hileta artea
Tfnok: 948 453444 • 908. 779903
ARIZKUN

J. RAMOS
Zolak akutxilatatu eta barnizatzen ditut
© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA

BURKAITZEA
ostatu • jatetxea
Zugarramurdiko errep. 3 km.
© 948 59 91 95 • URDAZUBI

ttipi-ttapa
internet
helbide berriak Internet: jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa
E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Xorroxin Irratiak programa berriak aireratuko ditu udazkenetik aitzin

Euskadi Irratia eta Iparraldeko irratiekin elkarlana hasi du

TTIPI-TTAPA

Udazkenean sartu berriak egon arren, Xorroxin Irratiak hostoak galdu beharrean hosto berriz hornituko du bere programazioa. Aldaketa dexente egiteko asmoa dute. Momentuz nabarmenena astearte arratsetakoa izanen da. Literatura eta euskal musikari eskainitako 'Sormenari leihoa' saioa aireratzen du Xorroxin Irratiak. Iparraldeko Euskal Irratiak (Gure Irratia, Irulegi eta Xiberuko Boza) eta Euskadi Irratiarekin batera egindako elkarlanaren ondorio da asteartero arratsoko zortziak eta bortzean ematen den saioa hau.

Saioa Euskadi Irratiako estudioetan egiten dute Fermin Erbiti eta Jon Alonsok. Xorroxin-



Lesakako lizentzia eskuratu ondotik Xorroxin Irratiko lan taldea programa berriak egiteko gogoz dago. Artxibokoa

go berriemaile Pello Lizarralde izanen da eta Lucien Etxezarreta Iparraldeko Euskal Irratietakoa. Nafarroako Gobernuak diruz lagundu du proiektu berri hau.

Honetaz gain, ordu-

tegi eta ahots berriak izanen dituzte zenbait programek. Arkupeak elkarteari eskainitako saioa ere berreskuratuko da astero-astero, berriz zenbait berrikuntzen artean. Ageri denez, Lesakako lizentzia es-

kuratzeak indar berria eman die Xorroxin Irratiko langileei. Hori bai, aldatzen ez den bakarra irratietan duten xokoa da. Baztan eta Malerrekan FM 107.5ean eta Bortziririk eta Sunbillan 107.2an.

flash

Turista ugari ibili da uda honetan

Baztango herrietako karraketan ederki nabaritu da turistak harat-honatean ibili direla. Halere, Nafarroako Gobernuako Turismo Zerbitzuaren datuen arabera, inguruko landaturismo etxeak eta hotelak ez dira bete. Honela, landaturismo etxeei dagokiez, errekista gehiago izan dute etxe osoa errentan ematen dutenak. uztailean %62 bete dira eta abuztuan %90. Logelak uzten duten etxeen kasuan, berriz, uztailean %37a bete dira eta abuztuan %79. Hotel eta ostatuetan jende gutiago ibili da Baztan-Bidasoa osoan. Turismo Zerbitzuaren arabera, okupazio datu hauek behar bezala ulertzeko, kontuan hartu behar da aitzineko urteetan baino eskaintza zabalagoa zegoela.

Berrikuntza eta konponketak eginen dira Baztango eskoletan

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamenduak, Haur eta Lehen Hezkuntza, Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntza eta Udal Musika Eskoletan moldatze lanak egiteko deialdian, Baztango zenbait eskoletako lanak sartu dira. Kasu guzietan aurrekontuaren %65a ordainduko du Nafarroako Gobernuak.

Honela, Iruritako eskolan trinketeko zola moldatuko da. Aurre-

kontua 853.578 pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuak 554.826 pezeta ordainduko du. Gartzaingo eskolan berogailua moldatu eta gela bat bitan banatuko da. Aurrekontua 952.732 pezetakoa da eta subentzioa 619.276 pezetakoa. Elizondoko San Francisco Javier eskolan, azkenik, igogailua egin eta kanaloia moldatuko da. Lanaren aurrekontua 7.791.393 pezetakoa da eta dirulaguntza 5.064.405 pezetakoa.

Nafarroako Kirol Jokoetan izen emateko azken egunak

Nafarroako XII. Kirol Jokoetan parte hartzeko izen emate epea zabalik dago datorren astelehena, irailak 28, bitartean. Horretarako, Elizondoko Arizkunenean dagoen Baztango Kirol Bulegora joan behar da edo 948 581279 telefonora edo 948 452269 fax

zenbakira deitu. Nafarroako Kirol Jokoak haur (1985-86an sortuak) eta kadete (1983-84an sortuak) adineko neska-mutikoei zabaldua daude eta hainbat kiroleretan aritzen ahal dira. Informazio gehiago jasotzeko ere, Kirol Bulegora jotzea da egokiena.

La Asturiana

ostatu • jatetxea

Tfnoa: 948 58 04 63
Santiago 51, ELIZONDO



Gazteendako era guzietako arropa

Lanerako arropa



OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

**Launbeta, urriak 3
Bezpera Eguna**

8etan altxaferua beste ha-siera emateko. **Gaueko 12,30etan** goizaldeko **5etara** kontzertua ZAPO-ZAIN eta MUNDIÑANO ANAIK taldeekin. **Goizal-dera** zinger-jatea.

**Igandea, urriak 4
Arrosarioko****Amabirjinaren Egune**

11etan Doneztebeko txis-tularien kalejira herriko ka-rriketaren barna. **12etan** Meza Nagusia. **1etan** otor-due. **5,30etan** pilota parti-duak. **6,30etan** 'Iruña' dan-tza taldearen saioa. Ondotik, dantzaldia Egun osoan zehar Anizko histo-ria jakiteko aukera izanen da, horri buruzko iskribuak prestatu baitituzte.

**Astelehena, urriak 5
Haur eta Baserritarren
Egune**

9,30etan Baztango III. Golf txapelketa. **12,30etan** mus txapelketa. **2,30etan** herri bazkarie. **5,30etan** futbito partidua: gazteak zaharren kontra. **7etan** haur jokoak eta txokolatada. **9etan** tor-tilla txapelketa. **9,30etan** herri afarie. Afarian, Euskal Herriko burusoilak omen-duko dira. **Afalondoan** dantzaldia JOXE ANGELe-kin, Akitutakoan Kantzon-tzillo lasterketa.

**Asteartea, urriak 6
Adiskidetasun Egune**

11etan Anizko inguruk zal-diz ikusteko aukera pare-gabea. **1etan** mus txapel-ketaren finala. **2,30etan** zi-kiro-jatea JOXE ANGELe-kin



alaiturik. **11etan** zinger ja-tea. **12etan** 'Gixajoa ni', beste akabera emateko.

**1926an Anizko Mendiarte pilota plazan
ateratako argazkian Erratzuko Etxebeltzeko
Fagoaga eta Anizko Pello Mari Azkarate**

Argazkia: Asier Maritorenak utzia

**Oronozko
etxeak Guardia
Zibilarentzat
izanen direla
berretsi du
Ansuategik**

Espainiako Gober-nuko ordezkariak, Fco Javier Ansuategik, Oronozko *Kamineroen* etxeak Guardia Zibila-rentzat izanen direla be-rretsi du. Ansuategik azaldu zuenez, Espai-niako Barne Ministeri-tzak oneritzia eman die Nafarroako Gobernuak eskaini etxeei. Gober-nuko ordezkariaren erranetan, «*biztanleeki-ko eta komunitateare-kiko errespetu osoz egi-nen ditugu gauzak. Herriko gazteak segu-ruago egonen dira*». So-las hauek oronoztarren haserrea sortu dute.

**Kamioilariak
ezin dira ibili
Dantzarineako
mugatik barrena
urte osoan**

Abuztu hastapenean, Anhoa, Zuraide eta Ezpeletako udalek de-bekatu zuten kamioien iragaitea Dantzarineko mugatik hilabete oso-an. Pirinio Atlantikoe-tako departamenduko kargudunek erabaki du-te debekua betearaztea urte osoan. Erabaki ho-nek eragina izanen du Baztango errepideetan, hainbat baitziren igan-de eta besta egunetan Dantzarinean barna sar-tzen ziren kamioiak.

Okindegia Jatetxea

Uxoa



Polig. Ind. Urbakal - Tfn. (948) 82 34 02 - BTTD ARROKIN

- Okindegian
- Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
- Jatetxean
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakietan



*Enkargatuz gero,
bildotsa ogi-labeen erreka.
Goxo-goxoa!*

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, © 948580939
ELIZONDO**UDAZKENEKO ARROPAK**Trajeak, jertseak, galtzak,
gonak, berokiak...**ESKULANGINTZAKO
MATERIALA**

ZUGARRAMURDI - URDAZUBI

Hogeita hamahiru haurrek hasi dute aurtengo ikastaroa

Gan den urtean baino hamasei gutiago

MARGARI ETA KORO

Irailean gaude eta herri tiki hauetako berri nagusienetako bat haurrak eskolatan hastea da.

Aurten aldaketa franko izan dire. Onera egin duten aldaketan aldetik eskolaren itxura dago, kanpoko aldetik txurixuri margotu dutelako. Txarrera doaiena, berriz, azken urte hauetako bolada segituz, haurren kopurua murrizten doaiela. Aurten Zugarramurdi eta Urdazubiren artean 33 haur baizik ez baitire eskolaratu (gan den urtean baino 16 gutiago).

Maestruen aldetik,



Gero eta guttiago dira eskolan dauden neska-mutikoak

Artxiboa

berriz, hiru maestru berri etorriko direla (gure zonalde hau alde guz-

tietatik urrun gelditzen omen dela-eta zozketa-ko boleto itxusiena iza-

ten da).

Ikasturte honetan ere igeriketa ikastaroak es-

kolako ekintzetan sar-tuak segituko dute: Us-taritzeko piszina esta-lian hamar ikastaldi har-tuko dituzte haurrek, Guraso Elkarteak or-dainduta.

Jendealde handia uda honetan

Ainhua, Sara, Urda-zubi eta Zugarramurdi 'Xareta' elkarteak bil-du zirenetik, turismo al-detik nabari da lan po-lita egin duela elkarte hunek. Aipatzekoa abuztuan ibili zen jen-dealde handia eta, ba-tez ere, aldaketa bate-kin: lehen baino fran-tses gehiago ikusten de-la.

SARA

Hizkuntza ikastaroak hastekotan dira

Besta euritsuak izan dira aurtengoak

MIXEL ETA JACQUELINE

Sarako gau eskolak (AEK) euskara ikastaroetan izena emateko epea zabaldu du, irailaren 21a eta 25a artean, telefono hunetara deituz gaueko 8etatik landa: 05 59542630. Xehetasun gehiago ukaiteko bilkura bat iraganen da irailaren 25ean, arratseko 8,30etan Gazteen Etxean.

Xareta herri erakundeak ere hizkuntza ikastaldiak eskaintzen ditu:

euskara, gaztelera eta aurten frantsesa. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko Herriko Etxera joan behar da.

Besta euritsuak

Uda nahiko idor joan bada ere, bestetan ez zegoen holakorik euri ainitz bota baitzuen. Hala ere jendea ugari ibili zen eta plazan eskaini behar ekitaldiak polikiroldegian ikusteko parada ukan zuten leihor leihorren. Aldiz

igandeko eta asteleheneko erreboten partidak ez ziren egin, ahate jokoa ere ez, baina zaldunek beren ibilaldia egin zuten auzo auzo, baita Hazparneko joaldunek ere. Gaztetxeak ere bere ateak zabalik zeuzkan larunbat eta igande gauean. Erran gabe doa giro bero eta alaia bazegoela.



Irailaren 5ean iragan zen goitibeheren ligako proba

Deiadar kari euskararen aldeko eguna urriaren 11n

Udaberriko Deiadar kanpainaren ondotik, Sarako euskaltzale elkarteek erabaki zuten euskararen alde egun bat antolatzea udazke-

nean. Hau urriaren 11n iraganen da eta bertzeak bertze, igande arratsaldearekin Berangoko S. Otxandategi dantza taldea ikusteko parada ukanen dugu.

Euskara jalgi hadi plazara; baita hi ere.

EZKONTZAK

Iban Jose Jimeno Sarasua eta **M^a Micaela Sukuntza Zabaleta**, Donostia eta Leitzakoa, abuztuaren 22an.

Carlos Lagalle Suberbiola eta **Micaela Sukuntza Zabaleta**, Mendabia eta Leitzakoa, irailaren 5ean.

Miguel M^a Moreno Mendizabal eta **Maria Elizalde Garbalena**, Lesaka eta Doneztebekoa.

Francisco Javier Beriain Estevez eta **Lurdes Mutuberria Baleztena**, Donostia eta Zubietakoa, abuztuaren 29an.

Jesus M^a Migeltorena Etxegia eta **M^a Aranzazu Mitxelena Etxarte**, Doneztebe eta Lesakakoa, irailaren 12an.

JAIOTZAK

David Jesus Juarez del Moral, Elizondokoa, abuztuaren 31n.

Juan Alberto Alves Goñi, Elizondokoa, irailaren 2an.

Jokin Eskudero Irurueta, Elizondokoa, irailaren 6an.

Uxo Gamio Ekioiz, Berroetakoa, irailaren 5ean.

Pello Telletxea Igoa, Lesakakoa, irailaren 1ean.

Aimar Etxeberria Apezetxea, Goizuetakoa, irailaren 10ean.

Ainara Lakanbra Galain, Doneztebekoa, abuztuaren 21ean.

HERIOTZAK

Carmen Oteiza Graziarena, Arraiozkoa, irailaren 3an, 92 urte.

Mauricia Camino Iparragirre, Elbetekoa, irailaren 4an, 82 urte.

Anacleta Iñigo Sagardia, Iturengoa, irailaren 13an, 88 urte.

Jose Mitxelena Pikabea, Arantzakoa, irailaren 2an, 87 urte.

Javier Lujanbio Zubiri, Goizuetakoa, irailaren 15ean, 39 urte.

Francisco Ibarra Indart, Legasakoa, abuztuaren 5ean, 85 urte.

M^a Begoña Piedad Azkarate Etxenike, Doneztebekoa, abuztuaren 26an, 42 urte.

Aurora Sistiaga Gonzalez, Doneztebekoa, abuztuaren 31n, 74 urte.

Agustina Eltzaurdia Altzuguren, Berakoa, abuztuaren 11n, 82 urte.

ZORIONAK!

Oparia ematen lehenak izan nahi dugu



Haurtxoa sortu eta etorri Iruñeko Kutxara berehala. Aldatzeko saskitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuekin bete, ematen dizugu.

Ez ahantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXARA

ORDOKI ALTZARIAK

Estilo ugariko mogleak

Kalitatea prezio egokian



ERAKUSKETA


Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637034

LESAKA

LOGELAK • EGONGELAK • TRESILLOAK • KUTXAK • BESAUAK...



Ezkurra eta Lizaso: partidu aitzinetik eta ondotik lagunak, baina kantxan aurkari gogorrak.

Arg.: Egunkaria

Doneztebarren arteko finalean Ezkurra nagusitu zen

- Laugarren Bingo-Londres saria eskuratu du Kotetok
- Lizasok ezin izan zuen txapelketan erakutsitako joku bikaina egin

Koteto Ezkurra doneztebarrak 35-24 irabazi zion Iñaki Lizaso herritar eta lagunari Hernaniko Galarreta pilotalekuan jokaturako Bingo-Londres txapelketaren finalean.

Irailaren 5ean jokatutako finala, edozein pilotazalek gogoan hartzeko moduko arrazoiak eskaini zituen. Buruz buruko erremonte txapelketaren finalean lehen aldiz herri bereko bi pilotari ari ziren aurrez aurre. Kotetok laugarren txapela segidan irabazi zuen, Matxin haundiaren marka berdinduz (datorren urteaz izanen du hobetzeko aukera). Eta hori gutti ez balitz, 26. tantutik aitzinera, sudurrean kolpe handia zuela aritu behar izan zuen Ezkurra, Lizasok des-

kuidoan emandako zartada gogor baten ondorioz. 40 minututan geldirik egon zen jokoa, baina laugarren txapelaren gosez kantxaratu zen Koteto eta azkenean, nahiko aisa gailendu zen.

Baina ez litzateke zuzena izanen bakarrik Kotetoren izena goraitzea eta Iñaki Martinez Lizasok

tengo txapelketan egindakoa atzendua uztea. Eskaileren beheko mailetan hasi eta partiduz partidu, finalerako txartela eskuratua zuen Iñakik. Bi hilabete z-

ramazkin galdu gabe eta, bitartean, Sanferminetako txapelketa irabazia zuen, bakarka nahiz bikoteka. Ez du meritu gutti, kontuan hartzen badugu aurten hasi dela aurrelari bezala jokatzen eta lesio la-

rra bat gainditu duela.

Partiduaren ondotik, Ezkurra hartutako ikarra gogoratzen zuen, «*ordu erdiz zorabiatuta eta altxatzeko ahalmenik gabe egon naiz*».

Laugarren garaipenarekin gustura agertu da: «*Irabaztea beti ederra da, bainapena pixka bat ematen dit*

Lizasorengeatik». ■



❖ Herriz Herri txapelketaren finalean Arraioz

Igande honetan jokatuta da Iruñeko Burgoen Plazan Nafarroako Herri Kiro Federazioak antolatutako Herriz Herri txapelketaren finala. Arraiozek final horretarako txartela lortu zuen Elizondon, lehen proba konbinatuan (koxxor biltzea, zakulariak, aizkolariak eta arpanlariak) eta bigarrenean (ingude altxatzea, harri altxatzea eta txingak) gailendu ondotik.

❖ Mirian Blas txapeldun Espainiako Kopan

BH taldeko Mirian Blas beratarrak nagusitasun osoz irabazi du Espainiako mendi-bizikleta jauntsiera Kopa. Mirianek txapelketak zituenean hiru probak irabazi ditu, azkena Bizkaian. Hilabete bukaeran Kanadan jokatuko den Munduko txapelketarako aukeratu ez badute ere, denboraldi bikaina egin du beratarrak. Elite mailan lehen urtea duen arren, Pirinotako Kopa irabazi du eta Espainiako txapelketan zilarrezko bi domina lortu ditu.

❖ Jon Irazoki Memoriala

Berako Gure Txokoa taldeak irabazi zuen irailaren 13an Jon Irazoki zenaren omenez Matzada futbol zelaian jokatutako IV. Memoriala. Sari hau eskuratzen duten lehen aldia da beratarrantzat.

Nafarroako bosgarren txapela jantzi du Donezteben Donato Larretxeak

- Lanaren hasieran aurretik ibili zen Mindegia izan zen bigarrena
- Arantzakoak Miel berak zuen marka ere hobetu du aurten

Donato Larretxeak irabazi du aurten ere Nafarroako aizkolari txapelketaren finala. Eguraldi txarraren ondorioz Doneztebeko eskolako pilotaplazan jokatu zen finalean ia minutu terdiko aldea atera zion bigarren izan zen Mikel Mindegiari. Honek, halere, 350 ikusleen txalorik handienak jaso zituen, 49 urtetan oraindik edozeini aurre egiteko moduan dagoela erakutsi baitzuen.



Ezker eskuin, Senosian, Mindegia, Larretxea, Barberena eta Jaunarena, Doneztebeko finalaren ondotik

Diario Noticias

BOSGARREN TXAPELAREKIN BATERA MARKA BERRIA

Arantzarrak 23 minutu eta 42 segundu behar izan zituen lau kanaerdiko, 60 ontzako bertze lau eta oinbiko bi enborrak mozteko eta bere bosgarren txapela jantzeko. Nafarroako finalean sekula lortutako markarik onena da hau. Aitzinekoa Mikel Min-

degiak egin zuen orain dela bortz urte (24'20"). Datorren hilabetean Tolosan jokatu den Euskal Herriko finalerako sasoi onean dagoela erakutsi du. «Ni gogor prestatuko naiz eta egina-

halak eginen ditut, baina hor maila haundixiagoa da» zioen Doneztebeko proba akitu bezain laster. Halere, ez zion garrantzi sobera eman marka berriari. «Hori, materialaren

arabera izaten da neurri handi batean eta gaur egur ona izan du-gu».

Mindegia lehenbiziko enborretan aitzinetik ibili zen, baina lanerditarako Larretxeak

aurea hartu zuen. Hor-tik aitzinera bere aldea haundituz joan zen, bigarren posturako lehia Mindegia eta Senosi-ani utziz. Bere bigarren oinbikoan aizkora xehetu bazuen ere, bigarren postuari eutsi zion Mindegiak, hameka segunduko aldearekin bertzerik ez bazen ere (25'10" zubietarrak eta 25'21" Olaguekoak). Hirukote honetatik de-xente gibelerago sailka-tu ziren Jose Juan Barbe-rena (29'20") eta Anto-nio Jaunarena (29'20").

Joselu Retegi, nafarroako Herri Kirol Federazioko lehendakaria gustora ageri zen finalak emandakoarekin. «Aurrekontua estaltze-ko 300 bat jende behar genuen eta kasik 400 etorri dira, ikusleen ar-tean giro polita egon da, bakoitza bere aizkola-ria animatuz eta marka berria egin da».

Larretxea eta Etxeberria nagusi bikoteka jokaturako Nafarroako txapelketan

- Igoan jokaturako finalean, lehia gogorra izan zen hiru bikoteen artean

Bakarkako finala baino astebete lehenago, irailaren 6an, jokatu zen Igoan Nafarroako bikotekako aizkora txapelketa. Donato Larretxea bera eta Felix

Etxeberria sunbildarra nagusitu ziren, kanaerdiko sei enborrak eta 60 ontzako bertze seiak 20'53"tan moztu ondotik. 25 segunduko aldea atera zioten Patxi Min-

degia zubietarra eta Olagueko Senosiaineri. Hirugarren postuan Mikel Mindegia eta Antonio Jaunarena zubietarrak sailkatu ziren, 22'08"ko denborarekin.

Hasieran, beheko koadroan ageri den bezala, berdintasun handia izan zen hiru bikoteen artean eta enbor bakoi-tzean aldatzen zen txapelketaren burua. Ha-

margarren enborra den-bora berean moztu zu-ten lehen bi sailkatuek. Azkeneko bi enborre-tan, ordea, gogor jo zu-ten Donato eta Felixek, txapela lortuz.

Nafarroako bikotekako aizkolari txapelketaren finala

1. LARRETXEA-ETXEBERRIA	1'10"	2'26"	3'46"	5'33"	7'53"	9'56"	11'55"	14'21"	16'29"	17'57"	19'26"	20'53"
2. P. MINDEGIA-SENOSIAIN	1'09"	2'28"	3'42"	5'31"	7'32"	9'51"	12'00"	14'09"	16'19"	17'57"	19'36"	21'18"
3. M.MINDEGIA-JAUNARENA	1'11"	2'24"	3'49"	5'38"	7'32"	10'18"	12'55"	14'59"	16'55"	18'26"	20'05"	22'08"

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

IGANTZI

► Irailaren 28tik urriaren 3ra Xehetasunak 14. orrialdean.

ANIZ

► Urriaren 3tik 6ra Xehetasunak 25. orrialdean.

URROZ

► Irailaren 25etik 29ra Xehetasunak 20. orrialdean.

DANTZAK

BERA

► Igande honetan, irailak 27, IV Dantzari Tiki Eguna ospatuko da Beran. Jaialdi nagusia arratsaldeko 5etan Eztegarra pilotalekuan.

ANTZERKIA

DONEZTEBE

► Irailak 27an Shakespeare Osoa (gutxi gora behera) antzeztuko du Tanitaka antzerki taldeak Bordatxon. Arratsaldeko 7etan hasiko da.

BERTSOAK

IGANTZI

► Irailaren 29an Igantziko patroia egunean Jon Maia, Xabier Legarreta, Oihane Enbelta eta EstiXu Arozena bertsolari gazteak arituko dira kantari.

HITZALDIAK

BERA

► Irailak 26, larunbatean, "Alcoholicos anónimos" elkarteak hitzaldi publikoa eskeiniko du Berako kultur etxean. Arratsaldeko 8etan.

HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA



Eguraldiak laguntzen badu ikuskizun bikaina izanen da igandean honetan Meakaundiko zelaian

Igantzikiko Artzain Zakur Lehiaketa

Hemeretzigarren edizioa beteko du igandean

Igande honetan, irailak 27, arratsaldeko 5etatik aitzinera burutuko da Meakaundi zelaian Igantziko Artzain Zakur Lehiaketaren hemeretzigarren edizioa. Herriko bestak, berez, astelehenean hasiko da, baina aitzineko asteburua ere probetuko dute igantziarrek.

Besta Komisioari gogotuta hasi zen proba hau egiten orain hamazazpi urte, hasiera batean besten egitarauaren barnean. Gero, Oñati

tiko probaren ondoko igandean egiten hasi zen, hau da, San Migel bestak baino lehen. Zenbait urtez bestak pasatuta ere egin da, baina aurren bezpera-bezperan izanen da.

Maila haundiko artzainek irabazi dute Igantziko lehiaketa, bertzeak bertze Patxi Etxeberrira amaiurtarrak, Jose Antonio Arrillaga edo Xabier Urienek. Eguraldia azken urteetan baino hobea izatea espero dugu.

BASERRIA



❖ ZERRIKUA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 2.000 pta.
- **Zerri gizona**(95-100): 110 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 50 pta./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**
 - **Idixkoak**: Pta./kg. Kanal
Extra550
1.koa523
2.koa510
 - **Urruxak**: Pta./kg. Kanal
Extra560
1.koa534
2.koa502
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 16.000 eta idixkoak 29.000 Pta.
Mestizoak: urruxak 31.000 eta idixkoak 42.000 Pta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 370 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE

DISKAK



«Arren erro zaharra»

Betagarri

MIL A GRITOS

Ska-rocka eta reggae-a doinuetan. Mexikoko iraultza, maitasuna, soldadutza, emakumeen borroka eta langileen batasuna hitzetan. Eta "manga" komiki japoniarren kutsua irudian. Horrela laburbildu daiteke Betagarri taldearen bigarren lana. Gaztelera, frantsesez eta batez ere euskaraz kantatzen duen taldeak Katarain estudioetan grabatu eta nahas-

tu du diska hau. Lan horretan grabaketan, alegia, laguntza ugari jaso dute: Hasier Oleagaren baterian, J.L. Indart teklatuan, Maixa Lizarribar ahotsak eta soinu txikian, Ixiar Oreja ahotsetan eta Luis Camino perkusioan. Orotara, 11 abestik osatzen dute diskoa. Dantzarako musika eta salaketa hitzak uztartzen dituzten kantak dira guztiak.

JAKIN BEHARREKOAK

Urrutiko salmentak hamalau...

●hitura aldaketak, denbora falta, hazkunde ekonomikoa, eta, batez ere, senar-emazteek etxetik kanpo lan egiteak ekarri duen aldaketa nabarmenatariko bat gauzak erosterakoan ikusten ahal dugu. Izan ere, gaur egun, internetez, katalogoz, postaz edo telefonoz erostea ohiko zerbait bihurtu da. Etxetik erosteak, ordea, arazo berriak ekarri ditu, kontsumitzaile guziok ezagutu beharko genituzkeenak.

Astero jasotzen dugu modu horretan zerbait erosi ondotik dirua berreskuratu ezinik dabilen jendearen hainbat kexa. Espainian indarrean dagoen "Ley del Comercio Minorista" deritzonak gauzak itzultzeko 7 eguneko epea ezartzen badu ere, aunitz dira honi uko eginez dirua itzultzen ez duten enpresak. Zoritxarrez, sortu orduko desagertzen diren enpresak direlako edo justizia garestiegia delako bereziki zaila da kexa horiek bideratzea.

ETXETIK EROSTEKO AHOLKUAK

Hori gerta ez dadin, hona hemen urrutiko salmen-

tei buruzko aholku zenbait:

1- Erosi aitzinetik konprobatu enpresari buruzko datu guziak. Ez fidatu posta kutxatila bertze datorik ez badute ematen. Nolabaiteko seguritatea izateko, enpresaren izena, telefonoa, helbidea, etab... behar ditugu.

2- Eskaintzaren iraupena, saltzailearen datuak, produktuaren ezaugarri nagusiak, prezio osoa eta ordaintzeko moduak azaldu behar dituzte. Informazio osoa ematen ez badigute, kasu!

3- "AEDM" elkartearen barnean dauden enpresak fidagarriagoak dira, 'kode etiko' bat bete behar dutelako.

4- Legeak 7 eguneko epea ematen du erositakoa itzultzeko.

5- Nahitanahiezkoa da si-

Astero jasotzen ditugu modu horretan zerbait erosi ondotik dirua berreskuratu ezinik dabilen jendearen kexak



Erosterako orduan ematen diguten guzi-guzia gorde behar dugu: publizitatea, kontratua, ordainagiria, garantiak...

natu ondotik kontratu bat ematea, baita ezeztapenerako dokumentu bat ere.

6- Eskatu ez duguna ezin digute etxera igorri. Hori gertatu ezker ez da inoiz hartu behar, dirua itzultzeko trabak paratuko dituztelako gero.

7- Osasungarriak bezala saltzen dizkiguten gauzekin kontu eman!

8- Dokumentazio guzia gorde, bertzenaz ezin izanen baita erreklamaziorik egin.

AGENDA EGUNEZ EGUN

MENDIA

ELIZONDO

► **Baztango Mendi-goizaleek**, denboraldia hasteko, Piriniotan barna zeharkaldia egiten dute irailaren 26an.

BERA

► **Agerra Mendi Taldea** 'Gran Facha' izeneko mendira joanen da irailaren 26 eta 27an, asteburu pasa. Izena emateko deitu 948 634 199 telefonora (Xabier).

MIKOLOGIA

ELGORRIAGA

► **Urriaren 3 eta 4an**

Nafarroako Onddo eta Zizen Kofradiak antolatu dituen jardunaldiek segida izanen dute. Larunbatean Onddo eta Zizen Kazuelen Lehiaketa ospatuko dute.

ERAKUSKETAK

BERA

► **Urriaren 2tik 11 bitartean** zabalik egonen da artista gazteen erakusketa kultur etxean. Margo, eskultura, collage eta argazkiak izanen dira ikusgai.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfpora. deitu behar da

► **Irailaren 24tik**

30era Lesaka, NARBARTe, Urdazubi, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► **Irailaren 31tik**

urriaren 6ra Bera, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

LIBURUAK



«KLETA BIZIKLETA»

Mariasun Landa
Jesus Lucas
ELKARLANEAN

Ikasturtea hasi berria da, baina hainbertze ikasketa eta ariketen artean, haurrek badute bere aisialdian ere irakurketaz gozatzeko aukerarik. Horren adibide dugu liburu hau. Tituluak dioen bezala, Kleta izeneko bizikletaren istorioa da Mariasun Landak hitzez eta Jesus Lucasek irudiz haurrei kontatzen dietena. bere jabea gus-tura ibili ohi da bizikletarekin

batera eta bertzera. Kletak baidu, ordea, jabeari hainbat buruhauste ematen dio ezaugarri bat: munduko bizikletarik burugorrena da. Eta azken aldian gauza bakarra du buruan: zooro joan nahi duela eta zooro joan nahi duela. Jabearen pazientzia agortu eta Kleta dixosozko zooro eramatea erabakiko du azkenean. Han zer gertatuko?

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa *Hegoaldetik deitzeko Iparaldetik 00-34-*

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

TXALETA

Txaleta salgai. 120na m²ko hirru solairu. Garajea eta terraza. Denetara 440 m². 2.640 m²ko lur-eremu itxia. Kazernan.

- ☎ 948 630 941
- ☎ 948 631 137

BULDAIN

LEITZA erdialdean,

pisu bat daukat salgai.

9.500.000 pezeta

- ☎ 989 232 912

LESAKA. Pisia salgai. ☎ 948 637 370.

LESAKA. Bittira karrikaren 75ean, 4. pisua salgai, 3 logela, sukalde ekipatua, komedorea eta bainua. Hagitx egoera onean. ☎ 943 625305.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

DONEZTEBE. Pisu bat erosiko nuke. ☎ 989 232 912.

Etxe, baserri edo borda erosiko nuke Baztan-Malrekan. ☎ 948 225 454.

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

BERA. Pisu mobleztatua errentan emanen nuke, Eztegarra pasealekuan. ☎ 948 630 270.

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

BERA edo **LESAKA**n pisu bat hartuko nuke errentan. ☎ 943 134 420 (gauzez).

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

Txantrea aldean pisua osatzeko jende bila nabil. ☎ 948 453 125.

IRUÑEA. Unibertsitate Publikoaren ondoan, bi neska behar dira pisua osatzeko. ☎ 948 450 845.

IRUÑEA. Berriozar auzoan neska bat behar da pisua osatzeko. ☎ 948 510 112.

Jende bila nabil ikasle pisu bat konpartitzeko Iruenen. ☎ 948 581 131.

BURLATA. Neska bat edo bi behar dira pisua osatzeko. Alokairu merkea. ☎ 948 450 578 (arratsez 10etatik 11,30etara).

DONOSTIA. Pisu bat osatzeko neska bat behar da (Antiguo auzoan). Hilabetean 15.500 Pta + argia + ura. Deitu gauzez. ☎ 948 637 121.

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

BERA. 70m²ko lokala salgai San Esteban karrikan, oso argitsua. Bulegoa edo-ta komertzioa jartzeko oso egokia. ☎ 948 630 394.

ROMANO DEKORAZIOA

120 m²ko lokala salgai BERAn.

7 metroko erakustokia, guztiz ekipatua.

Legia, 1

- ☎ 948-631137/630948

HENDAIA. Estudio ttiki bat, 16 m²koa, salgai. Hondartzatik 100 m.ra, oso polita. 6 milioi pta. ☎ 943 645 064.

BERA. Ostatura salgai, Foruen Plaza 6.ean. ☎ 948 630 799.

GARAJEAK/LOKALAK

108 EROSI

Lesaka edo Beran 40 m² inguruko nabe-pabilioia erosiko nuke. Kamioia sartzeko egokia izan behar du. ☎ 948 451 841.

GARAJEAK/LOKALAK

110 ERRENTAN HARTU

IGANTZI. Lokal bat errentan hartuko nuke. 30 m²koa. ☎ 948 631 358 (gauzez).

LURRAK/ORUBEAK

112 SALGAI

BERA. 28.000 m²ko lur eremua salgai. ☎ 948 630 040.

ARANTZA. 1.100 m²ko lur eremu eraikigarria salgai, 3.500.000 pezetan. % 948 306502 (Jose Antonio, bazkal eta afal orduetan).

LURRAK/ORUBEAK

113 EROSI

Oieregi eta Arraioz artean lur-eremu bat erosiko nuke. ☎ 948 451 841.

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

ARANTZA ZYRGINDEGIÀ

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako zurgin lanak

Ostia auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

ZERBITZUAK

208 BERTZELAKOAK

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloia
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egiten dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

- ☎ 948 63 11 88

Topografia lanak egiten dira: lur neurketak, nibelazioak, zuinketak, etab. ☎ 930 23 70 78 (gauzez).

Ehizari-lan klaseak ematen ditut. ☎ 948 581 131 (Teresa, Elbete).

Ezkontza eta urrezko edo zilarrezko ezteietako elizkizunetan kantatzen dut (Abe maria...). ☎ 948 610 697 (9etatik 10etara, Maitete).

Garraioak eta etxe aldatzeko egiten dira. Deitu konpromezurik gabe. ☎ 930 919 158.

LANA

302 ESKAINTZAK

Neska behar da Donibane Lohizunen etxe batean lan egiteko. ☎ (07 33) 559 261001 edo (07 33) 559 260861.

IRAKASKUNTZA

402 AKADEMIAK

SPARK

ENGLISH ACADEMY CENTRE

NATIVE CERTIFICATED

Juliet

Ioti

98-99 ikasturtea urriaren 5ean hasiko da SPARK ingles akademian. Eman izena lehenbailehen!

- ☎ 948 58 13 38

Giltxaurdi, 12 - 3.B ELIZONDO

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Audi 80 TDI salgai. ☎ 948 161 447 eta 948 580 491.

Volkswagen Golf 1.6 eta **Volvo 240 polar** salgai. ☎ 948 510 309.

Volkswagen Passat 16 v. salgai. Oso egoera eta prezio onean. ☎ 943 216 852 (8etatik 13etara) eta 943 313 080 (gauzez).

Peugeot 505 salgai. Merke eta ehizi sasoirako espresa. ☎ 948 630 869.

Ford Escort CLX 16v txuria salgai. Oso egoera onean. ☎ 948 510402.

Renault Traffic D, salgai, NA-AJ matrikuladuna. ☎ 948 637 337.

Ford Fiesta gorria salgai. ☎ 930 919 158.

Citroen Yumpy furgoneta salgai. NA-AN. ☎ 907 944 135 edo 948 243 939.

Peugeot 306 salgai. 2 litro, 16 balbula, 1995koa. Ekipamendu guziarekin. ☎ 948 630766 (Jose M^a).

Yamaha Teneré 600 salgai. Oso egoera onean. 250.000 pta. ☎ 948 631 119 (eguerdi eta gauzez).

Kawasaki GPZ 500 salgai, SS-AK eta ongi zaindua. 380.000 Pta. ☎ 948644545.

Suzuki Suzy scooter-a salgai, 50 c.c., 4.000 km. 125.000 pta. Berria dago, ibili gabea. ☎ 948 610 686.

Montesa Cota 335 salgai, modu onean. ☎ 948510061.

Suzuki GSE motoa salgai, karreterakoa. Egoera onean. ☎ 948 580 420 (gauzez).

Opel Kadett GSI 2.000 salgai, arroxak kolorekoa. 300.000 Pta. ☎ 948 510669.

MOTORRA

502 TAILERRAK

Katakumeak oparitzen di-

BERABI tailerrak
☎ 948 631 445•BERA

Bigarren eskuko autoak
Peugeot 309
Opel Corsa
Nissan Patrol TA polita
Ofertak auto berrietan

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Corsa D, Frontera TD
Suzuki SJ410 (matrikula frantsesa)
Peugeot 106
Suzukiak eta Vitarak aukeran

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 948 63 06 23 • BERA

ANIMALIAK

601 EMATEKO

tut. ☎ 948 637 891.

4 zakurkume oparitzen dira, 2 hilabetekoak. ☎ 948 610 746.

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Zakur bat salgai. Elgorriaga. ☎ 948 450 052.

Fox Terrier zakurkumeak salgai, merke. ☎ 948 637 432.

Bortz urteko **behorra bere sei hilabeteko umearekin** salgai. ☎ 948 630 244 (eguerdi edo gauzez).

Collie arrazako zakur arra salgai, urte eta erdikoa. ☎ 948 630240.

Bekada zakurra salgai, urte batekoa. ☎ 948 451 661.

9 behi eta zezen bat salgai, mendikoak denak. Leizta. ☎ 948 510 669.

Hiru urteko **setter zakur arra** salgai, ehizian dakiena. ☎ 948 630067 (arratseko 7etatik 10etara).

ANIMALIAK

603 KLINIKAK

ALBAITERITZA KLINIKA

Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak
☎ 948 631362•Legia 13•BERA



DENETARIK

701 GALDU-AURKITUAK

Giltza batzuk galdu ditut Berako frontoian. Giltzariak tabakoaren propaganda du. ☎ 948 631 119.

Urrezko eskumuturrekoak aurkitu da Berako Eztegarra pilotaplazan abuztuaren 2an egin zen dantza jaialdian. Interesatuak deitu 948 631 188 telefonora.

Uztailean, **urrezko pultsera** aurkitu nuen Lesakan. "Julen" izena jartzen du. ☎ 948 637 492 (Anttoni).

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

4.000 litroko **zisterna** salgai, trakzioduna, galbanizatua eta 2 bonbarekin. ☎ 948 450 025.

320 litroko **esne tankea** salgai. ☎ 948 450 025.

150 litroko **esne-tankea**, Manus markakoa. salgai. ☎ 948 581 292 (arratsetan).

Ehiza eskopeta salgai, Breda markakoa. ☎ 948 510 235 (1etatik 3etara).

Pentium 166 (Packard Bell Force 7554) ordenagailua eta Packard inpresora salgai. Batere erabili gabeak. ☎ 948 599 195.

Motoaitzurra salgai, Agria markakoa. 100.000 Pta. ☎ 943 632 271 (deitu gaueko 10ak aldera eta Agustine-taz galdetu).

Antzinako plantxa erosi-ko nuke, tximinikoa edo bertzelakoa. Ez du inporta hondatuta baldin badago. ☎ 948 631 422.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Zorionak Mertxe eta Mercedes guzieri!

Elgorriagako **Oihana Migtorenari**: Zorionak irailaren 15ean urteak bete zenuelako. Aupa Athletic! Segi beti bezain alai eta parrandera. Zugarramurdi eta Urdazubiko lagunentzatik.

Gazteluko **Dabid Sagardiari**: zorionak zure 19. urtebetetze egunean, irailaren 9an. Urrozko bestetan pote batzuk hartzera gonbidatzea espero dugu. "Oiz" bi nesken partetik, M.I. eta E.Z.

Arantzako **Rafa eta Igor**: oroitzen al zarete Arraiozko bestatan ezagutu zenuztuzten bi neskekin? Ea noiz etortzen zareten Baztan aldera. Bi sorginen partetik.

Arizkungo Axunentzat: 15 urte bete dituzu. Nola sentitzen zara urte bat zaharrago? Ea noiz gonbidatzen gaituzun txanpain botila batera, O.K.? Nekane, Joxe, Anabel eta Miren Argiren partetik.

Zubietako Elaman bordako **Lurdesi** zorionak, irailaren 24ean. Ongi pasatzea espero dut, nahiz urte bat gehiago bete zuk ez baituzu karga askorik sumatuko. Zure sasoiari eutsi eta segi orain arte bezain umoretsu eta alai. Ea txanpainarekin ospatzeko aukera izaten dugun. Zure lagun baten partetik.

Arizkungo neska euskaltzaleenari: zorionak zure urtebetetze egunean eta musuketa zabala Iruñeko lagun guzientzatik. 26an Kaxianoren orde, Pottokaren diskoa paratzea eskatuko dugu Katun.

ttipi-ttapa



948
631
188

Zure
publizitaterik
onena



LAGUNTAILEAK
BEHAR DITUGU

Programak aurkezteko,
kamararekin irudiak
hartzeko, gidioak
egiteko...

Telebistaren mundua
gustokoa baldin baduzu,
deitu!

☎ 948 63 11 88



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeo, bidali sobrea zure helbidearekin.

Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptao 6 seilu (210 Pta./8 libera) bidali behar da. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkiak TTPI-TTAPA TELEBISTAN ere aterako dira.



Juan Antonio Yepes lesakarrak 26 urte bete ditu irailaren 6an. Zorionak Alex, Ander eta Beñaten partetik.



Mikeli Olaetxea lesakarrak urteak bete ditu irailaren 17an. Zorionak lantegiko lagunen partetik.



Julen Latorre Goia beratarrak 7 urte beteko ditu irailaren 30ean. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Nahia Irigoien Perez exalartarrak 6 urte beteko ditu irailaren 28an. Zorionak familiaren partetik eta muxu handi bat.



Zorionak familiaren partetik irailaren 24an urteak betetzen dituzulako.



Dunia Abatal Alzuguren irailaren 27an 3 urte beteko ditu. Zorionak bere familiaren partetik.



Fernando Etxegarai lesakarrak 6 urte beteko ditu urriaren 5ean. Aunitz urtez guraso, Goretti eta Martinen partetik.



Ana Huizi Manterola goizuetarrak 7 urte bete ditu irailaren 21ean. Zorionak familia guziaren partetik.



Ane Taberna Etxeberria goizuetarrak 7 urte bete ditu abuztuaren 30ean. Zorionak familia guziaren partetik.



Mikel Zabaleta Iriarte leitzarrak 5 urte beteko ditu irailaren 28an. Zorionak eta muxu bat bere familiaren partetik.



Aupa Axun, zorionak. Segi orain bezain jator eta umoretsu. Paratu txanpaina freskatzen elkarrekin edateko. Zubietao lagunak.



Olatz Retegi Etxeberria 15 urte bete ditu abuztuaren 2an. Zorionak kuadrilaren partetik.



Pello Azpirotz Sustatxa beratarrak urriaren 2an urtetxo bat eginen du. Zorionak bihurri! Ama ta atxe.



Naiara Aldazabal Zamarrreño beratarrak 12 urte bete ditu irailaren 23an. Zorionak Iñigo, Mikel, aita, ama eta amoñaren partetik.



Vicente Irazola urteak beteko ditu urriaren 1ean. Zorionak Berako familiaren partetik. Gurutze, Asier, Oier eta Hegoa.



Andoni Mitxelena Danboriena arantzarrak 9 urte bete ditu irailaren 20an. Zorionak familia guziaren partetik.



Itsaso Alcalde Etxepare lesakarrak 6 urte bete ditu irailaren 18an. Zorionak familiaren partetik.



Arantzako Alfonso urteak beteko ditu irailaren 24an. Aunitz urtez familiaren partetik.



Laida Sukilbide Martin elgorriarrak irailaren 21ean bete ditu urteak. Zorionak Fran eta Edurneren partetik.



Karmele Pika-bea Zubietak elgorriarrak irailaren 7an bete ditu urteak. Zorionak Edurne eta Franen partetik.



Maite Tejon Otxandorena iruindarrak urtea beteko du urriaren 5ean. Zorionak eta pa asko ama eta aitaren partetik.



Maite Tejon Otxandorena iruindarrak urtea beteko du urriaren 5ean. Zorionak gure sorgintxoari Argimiro eta Isabelen partetik.



Laura Iglesias Juanikotena beratarrak 16 urte bete ditu irailaren 22an. Zorionak eta muxu aunitz aita eta amaren partetik.



Pello Azpirotz Sustatxak urriaren 2an urtetxo bat beteko du. Zorionak bihurri! Ama ta atxe.



Antonio Arandia Arribillagak urteak beteko ditu urriaren 4ean. Zorionak!



Ion eta Javier Etxebeste Zayas lesakarrak urriaren 2an beteko dituzte 5 urte. Zorionak familiaren partetik.



Manuel Etxeberria lesakarrak urteak beteko ditu irailaren 25ean. Zorionak!



Zorionak! Mattin Jaunsaras doneztebarrak irailaren 19an 6 urte bete dituelako



Xabier Iparra-girre zuztialaren 16an bete zituen 22 urte. Ia 22 urte! Zorionak Luis, Josune eta Aitor-xoren partetik. Muxu handi bat.



Ibai Alcalde Etxepare urriaren 11 urte bete ditu. Zorionak aita, ama eta Itsasoren partetik.



Asier Lekuona eta Miren Lazkano beratarrak irailaren 26an ezkontzen dira. Egun berezia eta zoragarria pasa ezazue. Zuen familien partetik.



Andoni Eizagirre Zubietak iruindarrak urtea beteko du urriaren 27an. Zorionak familiaren partetik. Agur "potolete".



Garbiñe Jorajuria Bazterrika donamariarrak 11 urte beteko ditu irailaren 24an. Zorionak familia guziaren partetik.



Ekaitz Maritorea berroetarrak urtea beteko du irailaren 25ean. Zorionak eta muxu handi bat Amalur, aita eta amaren partetik.



Saioa Mikelarena Mendiburu legasarrak irailaren 19an bete du urtea. Zorionak Balaxiren partetik.



Karmele Pika-bea lesakarrak 18 urte beteko ditu irailaren 28an. Kaixo polita! Zorionak eta muxu bat. Doneztebe eta Lesakako familia.



Hiart Eguzkiagirre zorionak, irailaren 21ean urteak beteko dituelako. Ongi pasa, Xolete!



Elixabet Irazoki Zelaia beratarrak 6 urte bete ditu irailaren 18an. Zorionak panpoxa; lehenengo mailan!



Goizuetako **Mikel** eta Sunbillako **Iñigori** zorionak irailaren 26ean urteak beteko dituztelako. Zorionak lagunen partetik.



Zubietao **Beñati** zorionak bere bigarren urtebetetzean (irailak 13). Segi orain arte bezala, gelditu gabe, eta jan gehixeago.



Jokin Mariez-kurrena Jauregik irailaren 28an 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat aita eta amaren partetik.



Jorge Bereau Mazizior arantzarrak irailaren 23an 33 urte beteko ditu. Aunitz urtez, familiaren partetik.



EZKALO

Jose Antonio Elizondo Jauna

INFORMAZIOA: 948 451 518 / 948 450 054 (Doneztebe)

Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero




ALMANDOZ

- 200na m²ko hiru solairuko etxea salgai. 10.000 m²ko lur eremuarekin. Bidea, ura eta argia. 10 milioi pezeta.



OITZ

- Lau logelako txaleta salgai. Sukalde ekipatua, bi komun, sala tximiniarekin, garajea, ganbara eta 3.000 m²ko lur-eremua fruitondoekin.



BEINTZA-LABAIEN

- 150na m²ko hiru solairuko etxe berriua salgai. 5 logela, sukaldea, sala, gasoilezko berogailuarekin. Ateak eta leihoak haritzekoak eta *climatit* kristalekin.



ETXALAR

- Herri erdian etxea salgai. Bi familiendako egokia. Prezio negoziagarria.



IRATXE

- Txaleta salgai. 1.000 m²ko lur-eremuarekin. Prezio negoziagarria.



ZIGA

- Borda salgai bere lur-eremuarekin edo gabe. Prezio negoziagarria.



ULTZAMA

- Eltzaburun borda lur-eremuarekin salgai.



ALMANDOZ

- Borda-berri baserria salgai. Bi solairu, 150 m² bakoitzak. Bidea, ura eta argiarekin. 284 m²ko baratzea. 6.000.000 Pta.

BAZTAN

multiservicios

Santiago 51

"La Asturiana"
ondoan gaude

Tfnoa. eta faxa: 948 58 05 06

● ENPRESENDAKO KONTABILITATEA:

X Zerbitzu fiskala:

IVA, IRPF, Sozietateak

X Zerbitzu laborala:


Nominak, Autonomoak, Altak eta Bajak

X Juridikoa:

Kontratuak

● ETXE ETA LURREN SALEROSKETA ETA ALOKAIRU ZERBITZUA

● ESKAERA HAUNDIAGATIK, BASERRI, BORDA, ETA ETXEAK EROSI NAHI DITUĞU




Rafaela Zamorano
Bi semeren ama,
etxeoandrea,
igantziatarra

M^a Jesus Perurena
Lau seme-
alabaren
ama eta
DBHko
zuzendaria
Donezteben

Anttoni Urkiola
Bi alabaren
ama eta
Leitzako
botikako
langilea

Bittor Elizagoien
Alaba baten aita,
hargina eta
bertsolaria,
baztandarra



MALERREKA
MALERREKAKO EUSKALTEGIA (IKA)
LEITZAKO BIDEA. DONEZTEBE
TFNOA: 948 45 15 55

BAZTAN
Baztango Euskaltegia (AEK)
Baztan Ikastola. Santiago karrika
Elizondo
Tfnoa: 948 45 24 71
San Frantzisko Xabier
Ikastetxeko Guraso Elkarte
Abiazio etorbidea. Elizondo.

BORTZIRIAK
Bortzirietako Euskaltegia (IKA)
Arretxea karrika. Lesaka.
Tfnoa: 948 63 77 96
Herriko Etxea. Bera.
Tfnoa: 948 63 11 05

**LEITZA-LARRAUN-LEKUNBERRI-
IMOTZ-BASABURUA**
Leitzako Euskaltegia (IKA)
Elbarren 1. Leitza
Tfnoa: 948 61 07 76

ZERORREK DUZU...

- ESKOLAKO LANETAN HAURREI LAGUNTZEKO GILTZA
- DENDETAN, MEDIKUTAN, BANKUETAN, UDALETXEAN, TABERNETAN EUSKARA ERABILTZEKO GILTZA
- EUSKARAZ IRAKURTZEN ETA IDAZTEN HASTEKO GILTZA

ETA DENON ESKUETAN DAGO EUSKARARI ATEAK IREKITZEKO GILTZA

Antolatzailea:

**MENDIALDEKO
EUSKARA
ZERBITZUAK**

Babeslea:

